

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoa

Consortio de Aguas de Bilbao-Bizkaia

2016





AURKIBIDEA

LABURDURAK.....	7
I. SARRERA	9
II. IRITZIA	11
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia	11
II.2 Urteko Kontuei buruzko Iritzia	11
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK	12
III.1 Aurrekontua eta Kontabilitatea.....	12
III.2 Langileria-gastuak.....	12
III.3 Ondasun eta zerbitzuen kontratazioa	13
III.4 Kapital transferentziek eragindako gastuak.....	14
III.5 Udal Sareak, S.A.	14
IV. FINANTZA ANALISIA.....	15
V. URTEKO KONTUAK	17
V.1 Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoaren Urteko Kontuak.....	17
V.2 Udal Sareak, SAren Urteko Kontuak	21
V.3 Bilboko Urak, SAren Urteko Kontuak	22
ERANSKINAK	23
A Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoa	23
A.1 Araudi ezargarria	23
A.2 Aurrekontua eta aurrekontuko aldaketak	25
A.3 Langileria-gastuak.....	25
A.4 Ondasun arrunten eta zerbitzuen kontratazioa	27
A.5 Inbertsio errealak eta ibilgetu ukiezina eta materiala	27
A.6 Emandako transferentziak eta diru-laguntzak	28
A.7 Finantza inbertsioak eta Finantza aktiboen bariazioa.....	29
A.8 Tasak eta bestelako sarrerak	31
A.9 Kapital transferentziek eta diru-laguntzek eragindako sarrerak	31
A.10 Zordunak eta kobratzeko beste kontu batzuk.....	33
A.11 Funts propioak.....	33
A.12 Zorrak eta hartzekodunak eta ordaintzeko beste kontu batzuk.....	34
A.13 Aurrekontuaren eta ondare emaitzaren arteko berdinkatzea	35
A.14 Ondasunen eta zerbitzuen kontratazioaren analisia	36



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

B	Udal Sareak, S.A.	38
B.1	BBUPk Udal Sareak, SAren alde egindako mandatuak.....	38
B.2	Langileria-gastuak.....	39
B.3	Hornidurak	40
B.4	Ondasun eta zerbitzuen kontratazioaren analisisa	41
C	Finantza Egoera Bateratuak	42

ALEGAZIOAK	43
-------------------------	-----------

ÍNDICE

ABREVIATURAS	51
---------------------------	-----------

I. INTRODUCCIÓN	53
------------------------------	-----------

II. OPINIÓN	55
--------------------------	-----------

II.1	Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	55
------	--	----

II.2	Opinión sobre las Cuentas Anuales.....	55
------	--	----

III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL

INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	56
--	-----------

III.1	Presupuesto y Contabilidad.....	56
-------	---------------------------------	----

III.2	Gastos de personal	56
-------	--------------------------	----

III.3	Contratación de bienes y servicios	57
-------	--	----

III.4	Gastos por transferencias de capital.....	58
-------	---	----

III.5	Udal Sareak, S.A.	58
-------	------------------------	----

IV. ANÁLISIS FINANCIERO	59
--------------------------------------	-----------

V. CUENTAS ANUALES	61
---------------------------------	-----------

V.1	Cuentas Anuales del Consorcio de Aguas de Bilbao-Bizkaia.....	61
-----	---	----

V.2	Cuentas Anuales de Udal Sareak, S.A.	65
-----	---	----

V.3	Cuentas Anuales de Aguas de Bilbao, S.A.....	66
-----	--	----

ANEXOS	67
---------------------	-----------

A	Consorcio de Aguas de Bilbao-Bizkaia	67
----------	---	-----------

A.1	Normativa aplicable	67
-----	---------------------------	----

A.2	Presupuesto y modificaciones presupuestarias	69
-----	--	----

A.3	Gastos de personal	69
-----	--------------------------	----

A.4	Compra de bienes corrientes y servicios	71
-----	---	----



A.5	Inversiones reales e inmovilizado intangible y material	72
A.6	Transferencias y subvenciones concedidas	73
A.7	Inversiones financieras y variación de activos financieros.....	74
A.8	Tasas y otros ingresos	75
A.9	Ingresos por transferencias y subvenciones de capital	76
A.10	Deudores y otras cuentas a cobrar	77
A.11	Fondos Propios	78
A.12	Deudas y acreedores y otras cuentas a pagar.....	78
A.13	Conciliación resultado presupuestario-patrimonial	79
A.14	Análisis de contratación de bienes y servicios.....	80
B	Udal Sareak, S.A.....	82
B.1	Encomiendas realizadas por el CABB a favor de Udal Sareak, S.A.	82
B.2	Gastos de personal	83
B.3	Aprovisionamientos	84
B.4	Análisis de contratación de bienes y servicios.....	85
C	Estados Financieros Consolidados.....	86
	ALEGACIONES	87

Vitoria-Gasteiz, 2018ko maiatzaren 24a
Vitoria-Gasteiz, 24 de mayo de 2018





LABURDURAK

BAO	Bizkaiko Aldizkari Ofiziala
BBUP	Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoa
BEZ	Balio Erantsiaren gaineko Zerga
BFA	Bizkaiko Foru Aldundia
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia
HUA	Hondakin-Uren Araztegi
LZ	Lanpostuen Zerrenda
PFEZ	Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga





I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legean eta 2017rako Lan Programan erabakitakoari jarraikiz, Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoaren (BBUP) 2016ko ekitaldien Kontu Orokorraren fiskalizazioa mamitu du.

HKEEk gauzatutako BBUPren aurreko fiskalizazio lana 2012ko ekitaldiaren gainekoa izan zen.

Fiskalizazioak honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezkoak: Honako atal hauetan: aurrekontua, langileria, obren kontratazioa, hornidura eta zerbitzuak eta zuzenbide publikoko sarrerei buruzko arautegia.
- Kontularitzakoak: BBUPren kontuak eta BBUPren partaidetza gehiengoa duten sozietate publikoen Kontuak -Udal Sareak, SA eta Bilboko Urak, SA- ezargarri zaizkien kontularitzako printzipioen arabera gauzatu diren aztertzen da. Hiru entitateen kontuak kanpoko enpresa batek auditatu ditu, nahiz Bilboko Urak, Saren txostena jaulkitzeko dagoen.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren efikaziari eta efizientziari buruzko azterlanik besarkatzen. Nolanahi ere, azaleratutako hutsak "Kudeaketaren alderdiak eta Gomendioak" idazpuruan xehetasunez jaso ditugu.
- BBUPren finantza egoeraren analisisa

BBUP 1967ko martxoaren 17an sortu zuten Bilbo Handia Udalbatza Administratiboaren eta data horretan partaide ziren udalen artean. Berezko nortasun eta gaitasun juridikoa du, martxoaren 30eko 3/1995 Foru Arauan -Bizkaiko Udalez gaindiko Erakundeak arautzen dituen- eta apirilaren 2ko 7/1985 Legean -Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen- xedatutakoaren arabera. BBUPren Batzar Nagusiak 2014ko azaroaren 5ean estatutuak aldatu zituen eta horren ondorioz BBUP Bizkaiko Foru Aldundira atxikita geratu da.

BBUPren jardura nagusia partaide diren udalerrien lurralde esparruan uraren hornidura eta saneamendu zerbitzuak ematea da, hiri uraren zikloaren integrazio, zerbitzuaren kalitatearen homogeneotasun eta tarifen uniformetasun printzipioetan oinarritutakoa. 2016ko abenduaren 31n partzuergora bildutako udalen kopurua 80 udalerrikoa da, Bizkaiko Lurralde Historikoari dagozkionak eta atal honen amaieran zerrendatu ditugunak.

2000ko maiatzaren 9an eratu zen Udal Sareak, SA sozietatea eta bere egitekoa lotua dago uraren azpiegiturako obra publikoen kudeaketarekin eta uraren zerbitzu publikoari dagozkion zerbitzuekin, hornidura eta saneamendua bi atalak besarkatzen dituela, bai sare nagusian, bai bigarren mailakoan, bere izenean, BBUPren -akziodun bakar dena- kontura eta haren aginduz.

2000ko uztailaren 28an Bilboko Urak, SA sozietatea eratu zen BBUPk kanpoan zuen jardura kudeatzeko; BBUPk kapital sozialean % 51ko partaidetza du.



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

PARTZUERGOAN BILDUTAKO UDALERRIEN ZERRENDA

Abadiño	Dima	Izurtza	Portugalete
Abanto-Zierbena	Durango	Larrabetzu	Santurtzi
Alonsotegi	Elorrio	Laukiz	Sestao
Amoroto	Erandio	Leioa	Sondika
Arantzazu	Ereño	Lekeitio	Sopela
Areatza	Etxebarri	Lemoa	Sopuerta
Arrigorriaga	Etxebarria	Lemoiz	Turtzioz
Artea	Fruiz	Lezama	Ubide
Atxondo	Galdakao	Loiu	Ugao-Miravalles
Aulesti	Galdames	Mañaria	Urduliz
Bakio	Gamiz-Fika	Markina-Xemein	Urduña
Balmaseda	Gatika	Maruri-Jatabe	Trapagaran
Barakaldo	Getxo	Mendexa	Zaldibar
Barrika	Gizaburuaga	Morga	Zalla
Basauri	Gordexola	Mungia	Zamudio
Bedia	Gorliz	Munitibar-Arbatzegi- Gerrikaitz	Zaratamo
Berango	Gueñes	Muskiz	Zeanuri
Berriatua	Igorre	Ondarroa	Zeberio
Bilbo	Ispaster	Ortuella	Zierbena
Derio	Iurreta	Plentzia	Ziortza-Bolibar



II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Epaitegi honen iritzira, Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoaren Kontu Orokorra osatzen duten erakundeek zuzentasunez bete du 2016ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Epaitegi honen iritzira, Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoaren Kontu Orokorra osatzen duten erakundeek kontuek alderdi esanguratsu guztietan erakusten dute 2016ko aurrekontu-ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, bertan jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.

Iritziaren atalean eraginik ez badu ere, ondotik adieraziko ditugun alderdiak azpimarratu nahi ditugu, BBUPren eta Bilboko Urak, SAREN memorietan barne hartuak daudenak:

- Honekin baterako 2016ko ekitaldiko urteko kontuak dira BBUPk Foru Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra baliatuta prestatu dituen lehenengoak, BFAREN 2016ko urriaren 18ko Foru Dekretu bidez onartutakoa. Honenbestez, kontu horiek urteko kontu hasierakotzat jo dira eta hori dela eta, ez da aurreko ekitaldiarekiko konparazio zifrarik ematen.
- 2017ko joan den azaroaren 10ean egindako Bilboko Urak, SAKO bazkideen Aparteko Batzar Nagusi Unibertsalak erabaki du, 2015 eta 2016ko ekitaldietako kontuak onartu ondoren, sozietatea desegitea, likidazio-aldia abiaraziaz, administratzaileak kargugabetuaz eta kitatzailea izendatuaz.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak gehiegi eragiten ez dituzten akatsak ez ezik, kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere azaleratu dira.

III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

Konpromiso kredituak

- Inbertsio errealean aurrekontuan konprometituriko kredituek kapituluaren aurrekontu mugatzailea gainditzen dute, ez baitira dagozkion kreditua aldatzeko espedienteak izapidetzen; alabaina, konpromiso kredituen aurrekontuko egikaritzaren erregistroa egiten da kreditu erabilgarritzat hartuz konpromiso kredituen geroko ekitaldi bakoitzerako araudian finkatutako muga.
- Konpromiso kredituen aurrekontuak ez du diru-kontsignaziorik jasotzen Sestaoko udalarekin 6,6 milioi euroren zenbatekoan izenpetutako hitzarmenerako, batzar nagusiak onartu duena. Etorkizuneko ekitaldietan eragina duen zenbatekoa 5,7 milioi eurorena da eta orobat, ez da konpromiso kreditu horren berri ematen 2016ko abenduaren 31ko konpromiso kredituen egoeran.
- Batzar nagusiak 2016ko apirilaren 12an 2016-2018 aldirako 2 milioi euroren zenbatekoan gehitzea onartu zuen “Udal Sareak, SAK kudeatutako udalerriak hornitzeko bigarren mailako sarea birjartzeko planen egikaritzza sustatzeko laguntzen plana”; kreditu gehitze hori, baina, ez da konpromiso kredituen egoeran barne hartu.

III.2 LANGILERIA-GASTUAK

Kapitulu honetan ondotik adierazitako alderdiak azpimarratu ditugu:

- BBUPk aldi baterako laneko enpresa batekin kontratatu ditu 2014ko ekitaldiaz geroztik, modu jarraituan, pertsonal administratiboaren lanarekin lotutako zerbitzu batzuk; zerbitzuok ematen bi pertsona aritu dira, beti berak, eta ez da lan-poltsetara jo premia horiei erantzuteko.-2016ko abenduaren 27ko Zuzendaritza Batzordeak hitzarmen kolektiboaren aurreikuspenei jarraikiz onartu zuen 323.925 euroren funts ekonomiko baten ordainketa, langileei helburuen betetze-mailaren arabera ordaintzeko. Ordainketa egiteko justifikazioak erreferentzia egiten dio hasiera batean aurreikusitako kudeaketarako helburuei eusteari, helburu horiek zeintzuk diren eta nola bete diren zehaztu gabe; gainerako balorazioak dira, besteak beste, zerbitzuak areagotzeari, fakturazioko ehunekoak hobetzeari eta langileen inplikazioari buruzko irizpen globalak eta generikoak.
- Idazkaritza, kontu-hartzailtza eta diruzaintzako egitekoak lan kontratupeko langileek egiten dituzte; ordea, postu horiei esleitutako egitekoak funtzionarioek bete behar lituzkete.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.3 ONDASUN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

Kontratazio espedienteak

BBUPk 2013tik 2016ra bitarteko aldiaren esleitutako kontratazio espedienteetarik 19 aztertu ditugu, guztira 137,5 milioi euroren zenbatekoan (ikus A.14.1 eranskina); hona hemen azpimarragarriena:

- Guztira 69,3 milioi euroren zenbatekoan aztertu eta esleitutako 9 obra espedienteetarik bakarrean ere ez da kontratazio araudiak finkatzen duen proiektua gainbegiratzeko txostena egin (1etik 9ra bitarteko espedienteak).
- Guztira 116,1 milioi euroren zenbatekoarekin esleitutako hamabost kontratazio espedienteren administrazio-klausula berezien agirik esleipen irizpidetzat "proposatutako hobekuntza objektiboak" jasotzen dituzte, zein elementuren gainean eta zein baldintzetan balioztatuko diren hobekuntza horiek zehaztu gabe (1etik 6ra, 8 eta 15etik 19ra bitarteko espedienteak).
- Aztertutako hamabost kontratazio espedientetan, guztira 116 milioi euroren zenbatekoan esleitutakoetan, hilabetetik gorako atzeraldiak azaleratu dira proposamenak irekitzen direnetik esleipena egiteko finkatutako bi hilabeteen aldean (1etik 6ra, 8tik 10era, 12tik 14ra eta 16tik 18ra bitarteko espedienteak). Espediente hauetatik zazpitan atzerapena 3 hilabetetik gorakoa da.

Administrazioko kontrataziorik gabeko gastua

Ekonomia Zerbitzuetarako Zuzendaritzak BBUPren Zuzendaritza Batzordeari jakinarazi zion 2016ko ekitaldiko hainbat gastu zeudela kontratazioan akatsak izan dituztenak, eta Zuzendaritza Batzordeak onartu dituenak. Hauek azterturik, honako alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

- BBUPren instalazioetan zaintza eta segurtasun pribatuko zerbitzua kontratatzen jarraitu da 2014ko urriaren 31n kontratua amaitu zitzaion esleipendunarekin, 2016ko uztailaren 15era arte, guztira 1,7 milioi euroren zenbatekoan, BEZa kenduta. Egoera hau gertatzen da zerbitzu honi dagokionez izapidetu diren bi lizitazio prozesuen esleipenetan atzerapenak izan direlako Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboan bi errekurtso aurkeztu ostean, zeinaren ondorioz lehenengoan esleipena baliogabetu den eta bigarrean esleipen txostena zuzendu arazi den. Lizitazioaren prestalanak zorrotz bete behar direla uste dugu, esleipena garaiz egiteko, hartara, gastua kontratazio araudia betez egindako esleipenaren babesean kontratatu ahal izango da.
- Laginketa eta laginak laborategira eramateko zerbitzuaren kontratua iraungi aurretik desegin arren, zerbitzua ematen jarraitu zen espediente berria esleitu bitartera arte; 2015eko abendutik 2016ko ekainera arte egindako gastua guztira 119.000 eurorena izan da, BEZa kenduta.
- Hamabi jarduerari dagozkion zenbait hornidura eta zerbitzu, guztira 535.961 euroren zenbatekoan kontraturikoak, BEZa kenduta, errepikariak dira ekitaldi guztietan eta honenbestez, planifikagarriak eta lizitazio prozedura batean jaso daitezkeenak (ikus A.14.2 eranskina). Jarduera hauetarik bostetan, gerora dagozkion lizitazioak bideratu dira.



III.4 KAPITAL TRANSFERENTZIEK ERAGINDAKO GASTUAK

Sestaoko Udalari 12 urtetan zehar guztira 6,6 milioi euroren zenbatekoan egin beharreko ekarpenak, BBUPren batzar nagusiak onartutakoak, ez dira zenbatekoaren arabera xehatu helburu dituzten jarduera ezberdinetarako. Esan beharra dago hitzarmenak aurreikusten duela helburuetako bat izango dela edateko ura banatzeko sisteman obrak egitea, tokiko bigarren mailako jarduera planean txertatzetik eratorritakoak; gainerako erabilerak udalaren ohiko jarduerari dagozkio, besteak beste, udalaren hiri sarean eta udal ekipamenduetan hobekuntzak egitea (ikus A.6).

III.5 UDAL SAREAK, SA

Ondasun erosketak eta zerbitzuak

- 2013an guztira 2,6 milioi euroan esleitutako bi zerbitzu-kontraturen administrazio-klausula berezien agiriak adierazten dute, kontratua luzatuko balitz, aldean arteko adostasunez prezioak berrikusi ahal izango direla; ez da, baina, berrikusketarik egin 2016ko ekitaldian. Uste dugu pleguek berrikusketarako indizeak finkatu behar dituztela ezargarria den araudiaren arabera eta ezingo direla gero adosteko utzi (ikus B.4 eranskina).



IV. FINANTZA ANALISIA

Hona hemen BBUPren Aurrekontu Kontuetatik eratorri diren finantza magnitude nagusiak:

	Euroak milakotan	
	(*) 2015	2016
Tasak eta bestelako sarrerak.....	108.424	108.351
Transferentzia arruntak	-	294
Ondare sarrerak	1.021	639
Langileria-gastuak	(24.726)	(24.867)
Ondasun arruntan erosketa eta zerbitzuak	(56.800)	(56.120)
Transferentzia korranteak	(39)	(39)
ERAGIKETA ARRUNTEN EMAITZA	27.880	28.258
Inbertsio errealen besterentzea.....	111	185
Kapitalezko transferentziek eragindako sarrerak.....	46.110	39.198
Inbertsio errealak	(52.499)	(46.637)
Kapital transferentziek eragindako gastuak	(806)	(1.148)
KAPITAL ERAGIKETEN EMAITZA	(7.084)	(8.402)
Finantza aktiboen bariazioetatik sarrerak, gastuak kenduta	(1.950)	(2.065)
FINANTZA ERAGIKETEN EMAITZA	(1.950)	(2.065)
AURREKONTU ARRUNTAREN EMAITZA	18.846	17.791
EKITALDI ITXIEN EMAITZA	(5.265)	(720)
AURREKONTUAREN EMAITZA	13.581	17.071
EMAITZARI DOIKETAK		
Finantzaketa desbideratzeak	(24)	370
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako obligazioak	10.566	4.943
DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA	24.123	22.384

(*): HKEEk fiskalizatu gabeko datuak.

	Euroak milakotan	
	(*) 2015	2016
DIRUZAINNTZA GELDIKINA GUZTIRA	140.113	157.184
- Atxikitako finantzaketa soberakina.....	(349)	(335)
- Zalantzako kobragarritasuneko saldoak.....	(5.751)	(6.008)
- Jasotzeko dauden fakturak	(842)	(1.365)
DIRUZAINNTZA GELDIKIN ATXIKI GABEA	133.171	149.476

(*): HKEEk fiskalizatu gabeko datuak.

2017ko ekainaren 27ko Batzar Nagusian, 2016ko ekitaldiko BBUPren Kontu Orokorra onartzen duenean, 2017-2020 aldirako inbertsio programa aurkeztu zen, 182 milioi euroren zenbatekoan. Inbertsio hauek finantzatzen dira zati batean BFArekin izenpetutako Hitzarmen bitartez, zeinak aurreikusten dituen guztira 90 milioi euroren urtekoak 2017-2020 aldirako; BBPUk urteko hauetatik 15,8 milioi euroren zenbatekoa erregistratu du 2016ko aurrekontuan eta honenbestez, etorkizuneko aurrekontuetan 74,2 milioi euro geldituko lirake erregistratzeko. BBUPren Diruzaintza Geldikinak urteko eragiketa arruntan emaitzarekin batera, aurreikusitako gainerako inbertsioak finantzatzeko bide ematen du.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AURREKONTUAREN EGONKORTASUNA

BBUP apirilaren 27ko 272012 Lege Organikoaren 2.2 artikulua aplikazio eremuaren baitan dago, Aurrekontuaren Egonkortasun eta Finantzaren Iraunkortasunari buruzkoan. 2011ko urriaren 1az geroztik, Estatuko Administrazioaren Artekaritza Nagusiak (IGAE) BBUP Sozietate ez Finantzario modura du sailkatua, merkatura zuzendua Kontuen Europako Sistemak (SEC) ezarritako irizpideei jarraikiz; 2013ko martxoaren 1etik aurrera Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzaitza Nagusiak BBUP BFARA atxiki zuen.

2015eko urtarrilaren 1etik aurrera, 5/2013 Foru Dekretu Arauemailean jasotako xedapen gehigarri baten bitartez, aurrekontuaren foru arau orokorraren testu bategina onesten duena, foru sektore publikoari atxikitako partzuergoei ezargarria zaien araubidea arautzen da, BFAk kontrolatutako erakunde izaera dutenak, eta BBPU ere besarkatzen duena. Honi dagokionez, aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasunaren erregimena BFAk zehazten duen hura izango da; honenbestez, formalizatuko diren epe luzeko zorduntze eragiketek aldeztatik BFAREN baimena jaso beharko dute, Ogasun eta Finantzen Sailak zehazten dituen baldintzekin.

BBPUren egonkortasun helburua finantza oreka izatea da eta hori bete da, 2016ko abenduaren 31n galera eta irabazien kontuak erakutsi duen emaitza positiboa aintzat hartuta.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. URTEKO KONTUAK

V.1 BILBAO-BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN URTEKO KONTUAK

V.1.1 AURREKONTUKO KONTUAK

A. 2016-KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	Eranskina	Aurrekontua			Eskubide. kitatuak	Kobr.	Kobr. gabea
		Hasier.	Aldat.	B.betik.			
3.- Tasak eta bestelako sarrerak	A8	113.907	494	114.401	108.351	98.141	10.210
4.- Transferentzia arruntak.....		60	140	200	294	140	154
5.- Ondare sarrerak.....		831	-	831	639	316	323
6.- Inbertsio errealen besteren.....		-	-	-	185	185	-
7.- Kapital transferentziak.....	A9	40.156	112	40.268	39.198	23.225	15.973
8.- Finantza aktiboen bariazioa	A7	9.657	15.205	24.862	9.637	9.637	-
SARRERAK GUZTIRA		164.611	15.951	180.562	158.304	131.644	26.660

GASTUAK	Eranskina	Aurrekontua			Obligazio aitortuak	Ordaink.	Ordain. gabea
		Hasier.	Aldat.	Behin-bet.			
1.- Langileria-gastuak.....	A3	25.922	-	25.922	24.867	24.386	481
2.- Ondasun arrunt eta zerb. kontr. ..	A4	63.794	3.539	67.333	56.120	52.893	3.227
3.- Finantza gastuak.....		30	-	30	-	-	-
4.- Transferentzia arruntak.....	A6	67	-	67	39	39	-
6.- Inbertsio errealak	A5	64.441	8.563	73.004	46.637	40.959	5.678
7.- Kapital transf. eta diru-lag.	A6	700	1.784	2.484	1.148	943	205
8.- Finantza aktiboen bariazioa	A7	9.657	2.065	11.722	11.702	11.629	73
GASTUAK GUZTIRA		164.611	15.951	180.562	140.513	130.849	9.664

B. EKITALDI ITXIEN HONDAKINEN LIKIDAZIOA, 2016

Euroak milakotan

	Hasierako zorra	Baliogab.	Kobr./ ordaink.	Azken zorra
Zordunak	32.888	(720)	(27.357)	4.811
Hartzekodunak	(13.467)	-	13.366	(101)



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

C. AURREKONTUAREN EMAITZA 2016		Euroak milakotan
Kitatutako eskubideak.....		158.304
Aitortutako obligazioak.....		(140.513)
EKITALDIAREN EMAITZA		17.791
Ordaintzeke dauden obligazioen bajak.....		-
Kobratzeko dauden eskubideen bajak.....		(720)
AURREKONTU ITXIEN ERAGIKETAK		(720)
AURREKONTUAREN EMAITZA		17.071
AURREKONTU EMAITZARI DOIKETAK		
Atxikitako sarrerak dituzten gastuetan finantzaketa desbideratzeengatik.....		370
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako obligazioengatik.....		4.943
DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA		22.384

D. DIRUZAINZA GELDIKINA 2016.12.31N		Euroak milakotan
Diruzaintzako funts likidoak.....		151.303
Aurrekontu arruntetik kobratzeko dauden eskubideak.....	A10	26.660
Aurrekontu itxietatik kobratzeko dauden eskubideak.....	A10	4.811
Aurrekontuz kanpoko eragiketetatik kobratzeko dauden eskubideak.....	A10	4.979
Aplikatzeko dauden kobrantzak.....	A12	(16.032)
Aplikatzeko dauden ordainketak.....		3
Aurrekontuko eragiketetatik ordaintzeko dauden obligazioak.....	A12	(9.765)
Aurrekontuz kanpoko eragiketetatik ordaintzeko dauden obligazioak.....	A12	(4.775)
DIRUZAINZA GELDIKINA GUZTIRA 2016.12.31-N		157.184
Atxikitako finantzaketa soberakina.....		(335)
Zalantzako kobragarritasuneko saldoak.....	A10	(6.008)
Jasotzeko dauden fakturak (ekitaldiko gastua).....	A12	(1.365)
ATXIKI GABEKO DIRUZAINZA GELDIKINA 2016.12.31-N		149.476

E. KONPROMISO KREDITUAK		Euroak milakotan			
	Eransk.	2017	2018	2019	GUZTIRA
Ondasun arrunt eta zerbitzuetan gastuak.....		952	347	40	1.339
Inbertsio errealak.....	A5	35.214	8.628	456	44.298
GUZTIRA		36.166	8.975	496	45.637



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V.1.2 ONDARE KONTUAK

A. Balantzea 2016ko abenduaren 31n Euroak milakotan

AKTIBOA	Eransk.	Ekitaldia 2016	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	Eransk.	Ekitaldia 2016
AKTIBO EZ ARRUNTA		894.120	ONDARE GARBIA	A11	1.060.430
Ibilgetu ukiezina.....	A5	25.441	Ondarea		413.170
Ibilgetu materiala	A5	852.896	Sortutako ondarea.....		173.450
Taldeko entit. epe luz. finantza inbert.	A7	1.466	Bstel. ondare hazk. emaitz. egozteke		473.810
Finantza inbertsioak epe luzera	A7	14.317			
			PASIBO EZ ARRUNTA		1.436
			Epe luzeko zorrak	A12	1.136
			Taldeko erakundeekin zorrak	A7	300
AKTIBO KORRONTEA		198.886	PASIBO KORRONTEA		31.140
Izakinak		1.301	Epe laburreko zorrak.....	A12	1.089
Zord. eta kobratz. bat kontu batzuk	A10	43.996	Hartz. eta ordaintz. beste kontu batz	A12	30.051
Epe motzeko finantza inbertsioak	A7	2.286			
Eskudirua eta bestelako aktibo baliokideak		151.303			
AKTIBOA GUZTIRA		1.093.006	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZT.		1.093.006

B. Ondarearen Emaitza Ekonomikoaren Kontua 2016 Euroak milakotan

	Eransk.	Ekitaldia 2016
Tasen zerga sarrerak		100.663
Jasotako transferentzia eta diru-laguntzak		17.757
Ekitaldikoa.....		154
Ibilgetu ez finantzarioko diru-laguntzak egozteak.....	A9	16.892
Aktibo arruntetarako diru-laguntzak egozteak	A9	711
Amaitutako eta fabrikazioan dauden produktuen izakinak gehitzea		775
Kudeaketa arrunteko beste sarrera batzuk		7.824
Kudeaketa arrunteko sarrerak guztira		127.019
Langileria-gastuak		(24.917)
Emandako transferentzia eta diru-laguntzak		(1.188)
Hornidurak		(3.149)
Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk		(54.190)
Ibilgetuaren amortizazioa.....		(36.065)
Kudeaketa arrunteko gastuak guztira		(119.509)
KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA		7.510
Balio narriad. eta ibilgetu ez finantz. eta salgai dauden aktiboak bestereng. emaitzak		4
Beste kontu-sail ez arrunt batzuk		46
ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK		7.560
Finantza sarrerak.....		1.005
Finantza gastuak.....		(113)
Balioaren narriadura, bajak eta finantza aktibo eta pasiboen besterentzeak		(279)
Taldeko, talde-anitzeko eta elkartutako entitateetakoak	(21)	
Beste batzuk.....	(258)	
FINANTZA ERAGIKETEN EMAITZAK		613
EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA		8.173



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

C. Ondare garbian aldaketan egoera, 2016ko abenduaren 31n Euroak milakotan

	Ondarea	Sortutako ondarea	Ondarearen bst. hazkun. btz.	Guztira
1. Ondare garbian aldaketan egoera guztira				
2015eko ekitaldi itxieran ondare garbia	192.927	180.884	-	373.811
Kontularitza Plan berria ezartzeagatik doiketak	220.243	(14.887)	447.258	652.614
Doitutako hasierako ondare garbia	413.170	165.997	447.258	1.026.425
Ekitaldian aitortutako sarrerak eta gastuak	-	8.173	26.552	34.725
Ondare garbiaren bestelako eragiketak	-	(720)	-	(720)
2016ko ekitaldiko ondare garbiaren bariazioa	-	7.453	26.552	34.005
Ondare garbia 2016ko ekitaldi itxieran	413.370	173.450	473.810	1.060.430

2. Aitortutako sarreren eta gastuen egoera

Ondarearen emaitza ekonomikoa	8.173
Ondare garbian zuzenean jasotako aitortutako sarrera eta gastuak	44.155
Ekonomia-ondarearen emaitzaren kontura transferentziak	(17.603)
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	34.725

3. Entitate jabe(ar)ekiko eragiketen egoera

Ondare garbian aitortutako sarrera eta gastuak, jasotako diru-laguntzengatik	26.679
Entitate jabe(ar)ekiko eragiketak guztira	26.679

D. Eskudiruzko fluxuen egoera 2016ko abenduaren 31n Euroak milakotan

	2016ko ekitaldia
Jasotako transferentzia eta diru-laguntzen kobrantzak	40.434
Egiazko salmenten kobrantzak eta zerbitzuen prestazioak	107.777
Interesak eta kobratutako dibidenduak	968
Bestelako kobrantzak	52.409
Langileria-gastuen ordainketak	(24.828)
Emandako transferentzia eta diru-laguntzen ordainketak	(1.077)
Bestelako kudeaketa gastuen ordainketak	(57.051)
Beste ordainketa batzuk	(51.606)
Kudeaketa-jardueren eskudiruzko fluxu garbiak	67.026
Inbertsio errealeen salmentengatik kobrantzak	185
Finantza aktiboen salmentengatik kobrantzak	9.637
Inbertsio errealeen erosketagatik ordainketak	(49.631)
Finantza aktiboen erosketagatik ordainketak	(11.629)
Inbertsio eragiketengatik eskudiruzko fluxu garbiak	(51.438)
Aplikatzeke dauden kobrantzak	165.209
Aplikatzeke dauden ordainketak	(172.117)
Sailkatzeke dauden eskudiruzko fluxu garbiak	(6.908)
Eskudiruaren eta aktibo likido baliokideen hazk. garbia	8.680
Eskudirua eta eskudiruaren baliokide diren aktibo likidoak ekitaldi hasieran	142.623
Eskudirua eta eskudiruaren baliokide diren aktibo likidoak ekitaldi bukaeran	151.303



V.2 UDAL SAREAK, SA-REN URTEKO KONTUAK

A. Egoeraren Balantzeak 2016 eta 2015eko abenduaren 31n Euroak milakotan

AKTIBOA	2016	2015	PASIBOA	2016	2015
AKTIBO EZ ARRUNTA	74	105	ONDARE GARBIA	602	602
lbilgetu ukiezina.....	9	14	Funts propioak.....	602	602
lbilgetu materiala.....	65	91			
AKTIBO ARRUNTA	13.072	12.702	PASIBO ARRUNTA	12.544	12.205
Merkat. zord. eta kobratz bestel. knt. ...	12.601	12.350	Epe laburreko zorrak.....	-	3
Epe motzeko finantza inbertsioak	5	3	Merkat. hartzek. eta ordaint. bst knt b.....	12.544	12.202
Eskud. & bst. aktibo likidoak	466	349			
AKTIBOA GUZTIRA	13.146	12.807	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZT.	13.146	12.807

B. 2016 eta 2015eko ekitaldietako Galera eta Irabazien Kontuak Euroak milakotan

	Eransk.	2016	2015
Negozio zifraren zenbateko garbia	B1	6.614	5.808
Hornidurak.....	B3	(5.374)	(4.552)
Bestelako ustiaketa sarrerak	B1	89.291	87.453
Langileria-gastuak	B2	(970)	(947)
Bestelako ustiaketa gastuak.....	B1	(89.511)	(87.701)
lbilgetuaren amortizazioa		(50)	(59)
USTIAPENAREN EMAITZA		-	2
EMAITZA ZERGA AURRETIK		-	2
Mozkinen gaineko zerga		-	(2)
EKITALDIAREN EMAITZA, ERAGIKETA JARRAITUETATIK ERATORRITAKOIA		-	-
EKITALDIAREN EMAITZA		-	-

C. Ondare Garbian aldaketen egoera, 2015 eta 2016ko amaitutako ekitaldiena Euroak milakotan

	Eskrituran jasotako kapitala	Erreserbak eta ekit. emaitza	Guztira
1. Ondare garbian aldaketen egoera guztira			
2014ko urtearen azken saldoa	601	-	601
2015eko urtearen azken saldoa	601	1	602
2016ko urtearen azken saldoa	601	1	602

D. Eskudiruzko fluxuen egoera Euroak milakotan

	2015eko ekitaldia	2016ko ekitaldia
Ekitaldiaren emaitza zerga aurretik.....	2	-
Emaitzari doiketak	58	50
Kapital arruntean aldaketak	(37)	86
Ustiapen jardueren eskudiruzko fluxuak	23	136
Inbertsio-jardueren eskudiruzko fluxuak	(16)	(19)
Eskudirua edo baliokideen igoera garbia	7	117
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi hasieran	342	349
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi amaieran	349	466



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V.3 BILBOKO URAK, SA-REN URTEKO KONTUAK

A. Laburtutako Balantzeak 2016 eta 2015eko abenduaren 31n				Euroak milakotan	
AKTIBOA	2016	2015	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2016	2015
AKTIBO EZ ARRUNTA	-	-	ONDARE GARBIA	1.695	1.737
			Eskrituran jasotako kapitala.....	2.293	2.293
			Aurreko ekitaldietako ondorioak	(556)	(326)
			Ekitaldiaren emaitza	(42)	(230)
AKTIBO ARRUNTA	2.036	2.041	PASIBO ARRUNTA	341	304
Merkat zordunak eta bestel. knt	-	4	Epe laburreko bestel. zorrak.....	341	304
Epe motzeko finantza inbertsioak	14	14			
Eskud. eta b. aktibo likido baliokide batz. ...	2.022	2.023			
AKTIBOA GUZTIRA	2.036	2.041	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZT.	2.036	2.041

B. 2016 eta 2015eko ekitaldietako Galera-irabazien Kontu Laburtuak		Euroak milakotan	
		2016	2015
Bestelako ustiaketa gastuak.....		(43)	(239)
USTIAPENAREN EMAITZA		(43)	(239)
Finantza sarrerak		-	9
Trukaneurri aldeak		1	-
EMAITZA FINANTZARIOA		1	9
EMAITZA ZERGA AURRETIK		(42)	(230)
Mozkinen gaineko zerga		-	-
EKITALDIAREN EMAITZA		(42)	(230)



ERANSKINAK

A BILBAO-BIZKAIA UR PARTZUERGOA

A.1 ARAUDI EZARGARRIA

Abenduaren 27ko 27/2013 Legearen azken xedapen bigarrenak, Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasun neurriei buruzkoak (TOAIL), azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldarazten du, Herri-administrazioen araubide juridiko eta administrazio-prozedura erkideari buruzkoa, eta xedapen gehigarri bat eransten dio, hogeigarrena, partzuergoen araubide juridikoa arautzen duena. Xedapen honen edukitik zera azpimarratu behar dugu:

- Partzuergo bakoitzaren estatutuek zehaztuko dute zein Administrazio publikori dagoen atxikia.
- Partzuergoak atxikitzen zaizkion Administrazio publikoaren aurrekontu-, kontabilitate- eta kontrol-araubideari meneratuko zaizkio, apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan, Aurrekontuaren Egonkortasunari eta Finantzaren Iraunkortasunari buruzkoan, aurreikusitakoari meneratzea eragotzi gabe. Kasu guztietan, urteko kontuen auditoria bat egingo da eta partzuergoa zein administrazioari atxiki zaion, administrazio horren kontrol-organoaren erantzukizun izango da auditoria egitea. Partzuergoak aurrekontuen atal izango dira eta atxikipenezko Administrazio publikoaren kontu orokorrean jaso beharko dira.
- Langileen erregimen juridikoa atxikipenezko Administrazio publikoarena izango da eta ordainsariek ezingo dituzte, inola ere, Administrazio publikoan baliokide diren lanpostuetarako finkatutakoak gainditu.

Urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoak, 2026ko urriaren 2an indarrean sartu zenak, besteak beste, aipatutako aldaketak jasotzen ditu eta agintzen du, gainera, ondare-erregimena partzuergoa atxikitzen den administrazioarena bera izango dela.

BBUPren Estatutuen 1. artikulua 4. atalak agintzen du Partzuergoa Bizkaiko Foru Aldundiari atxikia geratuko dela eta foru araudiak erabakiko duela atxikipen horren edukia eta irismena.

BFAREN Diputatuen Kontseiluak 2016ko urriaren 18an zenbait erabaki hartu zituen, BBUPri ezargarriak zaizkion aurrekontu, kontabilitate, kontrol, aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren jasangarritasun araubidea onesteari dagozkionak, 5/2013 Foru Dekretu Arauemailearen zazpigarren xedapen gehigarriaren aurreikuspenei jarraikiz, zeinak Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 572006 Foru Arauaren testu bategina onesten duen. Erabaki hauek honako hauei egiten die aipamen, nagusiki:

- BBUPri ezargarria zaion ondare kontabilitateko araubidea BFAREN abenduaren 27ko 219/2011 Foru Dekretuan finkatutakoa izango da, zeinak Kontabilitate Publikoko Plan Orokorra onartzen duen, edo hori ordeztzen duen araudian finkatutakoa.



- BBUPri ezargarria zaion aurrekontuaren egonkortasunari eta finantzaren iraunkortasunari buruzko araudia BFari dagozkion finantza sozietateei dagokiena izango da, SEC10 terminoetan, harik eta sailkapen horri eusten zaion bitartean.
- BBUPri baimena eman bere batzar nagusiak onartutako aurrekontua egiteko irizpideak eta aurrekontuko kontabilitate irizpideak aplikatzeko.

Honez gain, BBUPri aplikagarriak zaizkion ondoko arauak gailendu nahi ditugu:

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarri arauak arautzen dituen eta 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, Toki Araubidearen Gaietan indarreko xedapenen testu bategina onesten duena.
- 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
- 3/1995 Foru Araua, martxoaren 30ekoa, udalaz gaindiko entitateak arautzen dituen.
- 10/2003 Foru Araua, abenduaren 2koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Entitateen aurrekontuei buruzkoa.
- 9/2005 Foru Araua, abenduaren 16koa, Toki Ogasunei buruzkoa.
- 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen testu bateratua onesten duena.
- 219/2011 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Aldundiaren Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra onesten duena.
- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontuaren Egonkortasun eta Finantzaren Iraunkortasunari buruzkoa.
- 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, abenduaren 3koa, 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onesten duena, abenduaren 29koa, Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
- 15/2014 Legea, irailaren 16koa, Sektore Publikoa arrazionalizatzeko eta administrazio erreformaren beste neurri batzuei buruzkoa.
- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, 2011ko urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duena.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa
- Bilbao-Bizkaia Uren Partzuergoaren estatutuak.

A.2 AURREKONTUA ETA AURREKONTUKO ALDAKETAK

BBUPren 2016ko ekitaldiaren Aurrekontu Orokorra hasiera batean 2015eko Batzar Nagusiak onartu zuen 2015eko azaroaren 3an. Argitara ematen denetik aurrera hamabost lanegun igaro ostean batere erreklamaziorik jaso gabe, behin betiko onartua geratu zen eta 2015eko azaroaren 30eko BAOen eman zen argitara.

2016ko ekitaldiari dagokion BBUPren Kontu orokorra Batzar Nagusiak onartu zuen 2017ko ekainaren 27an eta onarpena 2017ko uztailaren 6an eman zen argitara BAOen.

Gastuen aurrekontuaren egikaritze maila guztira % 77,8koa izan da. Ondasun arrunten erosketak eta inbertsio errealak bi gastu kapituluek, aurrekontu guztiaren gainean % 78 egiten dutenek, gastu arruntaren kapituluan % 83,3ko egikaritze ehunekoa eta inbertsio errealean kapituluan % 63,9koa erakutsi dute.

Aurrekontu aldaketak

Aurrekontu arruntean eragina duten 2016ko aurrekontuko aldaketak honako hauek dira:

	Euroak milakotan				
	Geldikinen txertakuntza	Gaikuntza	Kreditu bajak	Kreditu osagarriak	GUZTIRA
Ondasun arrunt eta zerbitz. erosketak	1.079	140	(335)	2.655	3.539
Inbertsio errealak	9.146	606	(12.663)	11.474	8.563
Kapital transferentziak	884	-	-	900	1.784
Finantza aktiboen bariazioa	-	-	-	2.065	2.065
GASTUAK GUZTIRA	11.109	746	(12.998)	17.094	15.951

Kreditu geldikinen txertaketa eta kreditu osagarriak baliogabetzeagatik bajetatik garbi Diruzaintza Geldikinarekin finantzatzen dira, 15,2 milioi euroren zenbatekoan.

A.3 LANGILERIA-GASTUAK

Langile gastuak honako hauek dira, kontzeptuen arabera xehakatuak:

	Euroak milakotan	
	2016	2015
Lan kontratupeko langileen ordainsariak	18.868	18.551
Gizarte Segurantzak	4.623	4.515
Elkarkidetzari ekarpena	573	590
Mediku-botika laguntza	66	27
Jubilazioagatik kalte-ordainak	266	625
Bestelako gizarte gastuak	471	418
LANGILERIA GASTUAK, GUZTIRA	24.867	24.726



Ordainsariak eta Elkarkidetzari egindako ekarpenak

Atal honetan ondotik adierazitakoak azpimarratu nahi ditugu:

- 2016ko urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko urriaren 29ko 48/2015 Legean finkatutakoari jarraikiz:
 - Erakundeko langileen ordainsariak ez dute % 1etik gorako igoerarik izan 2015eko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, homogeneotasunari dagokionez.
 - Erakundeak ekarpenak egin ditu enpleguko pentsio planetarako edo aseguru kolektiboko kontratueterako, erretiro kontingentziaren estaldura besarkatzen dutenak; izan ere, horiek 2011ko abenduaren 31n baino lehenago izenpetu ziren.
 - 2012ko abenduko aparteko ordainsaria ez ezik, berariazko osagarriaren ordainsari osagarria edo ordainsari osagarri baliokideak kendu izanaren ondorioz efektiboki jaso ez diren zenbatekoak berreskuratzeko kontzeptu pean, ordaintzeko zeuden diru-kopuruak ordaindu dira eta guttiz ordaindua dago 2016ko ekitaldi itxieran.
- 2016ko ekitaldian erretiro aurreratuagatik ordainsariak ordaindu zaizkie 4 langileri, guztira 265.916 euroren zenbatekoa egin dutenak. BBUPk ordaindutako sariei PFEZaren arautegian finkatutako atxikipean aplikatzen dizkie eta zerga horri meneratutako ordainsari modura aitortzen du sarien % 50, arautegiak agintzen duenari jarraikiz.
- Helburuak betetzeagatik ordainsari bat ordaindu da, 323.925 euroren zenbatekoan.

Plantilla eta Lanpostuen Zerrenda

BBUPren LZk eta aurrekontuko plantillak 350 plaza jasotzen dituzte 2016ko abenduaren 31n. Ekitaldi itxieran egiazko plantilla 369 langilekoa da; kopuru horretan eragina du, besteak beste, erretiro partzialei lotutako txanda kontratuak izateak eta LZra atxikitze dagoen langileria izateak.

Hitzarmen kolektiboa

XVI. Hitzarmen kolektiboa 2016ko uztailaren 18an izenpetu zen, 2016ko uztailaren 1etik aurrerako indarrarekin eta 4 urteko eperako. Azpimarratzekoa da lanbidea garatzeko sistema bat ezartzen duela, lanaren ebaluazioari meneratua gardentasun, objektibotasun, inpartzialtasun eta ez diskriminatzeko irizpideen arabera. Ebaluazio positiboek bideratuko dute lanbide-karreran aurrera egitea, ordainsari-koska bakoitzean graduak lortuz. Graduak osagarri honek ordainsariak finkatzeko aurreko sistema ordeztzen du eta ez ditu kaltetzen hitzarmenean araututako egoera iragankorrak.

Nolanahi den ere, lanbide garapenerako sistema hau jada aplikatzen zen 2014ko abenduaren 17an XV. hitzarmeneko gatazkak aztertu eta konpontzeko Batzorde paritarioak hartutako erabakia indarrean sartuz geroztik; erabaki honen ondorioz, hitzarmen hartan aurreikusitako kontsolidazio sistema ordezkatzeko egindako lana ebaluatuko zuen sistema batekin, BBUPko langileen garapen profesionala bultzatuko zuen lanbide karrera zeharkakoa konfiguratzeko bide ematen zuena.

A.4 ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketagatiko gastuaren xehapena honakoa da:

	Euroak milakotan	
	2016	2015
Kanpoko beste lan batzuk	25.507	25.932
Energia elektrikoa.....	7.450	8.114
Konponketak, mantentze lanak eta zaintza	6.842	5.968
Azterketak eta lan teknikoak	4.806	4.972
Erreaktiboak eta laborategiko hornigaiak.....	2.404	2.454
Bestelako hornigaiak	2.106	2.076
Segurtasuna	1.160	1.041
Komunikazioak.....	1.034	819
Gasa eta erregaia.....	909	886
Zergak.....	755	573
Garbiketa	692	761
Beste kontzeptu txikiago batzuk.....	2.455	3.204
ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA	56.120	56.800

“Kanpoko beste lan batzuk” kontzeptuak gastu kapitulu honen ekitaldiko gastuaren % 45,5 egiten du eta nagusiki, BBUPren instalazioen mantentze eta laguntza teknikoak emateko kontratuei dagokie.

A.5 INBERTSIO ERREALAK ETA IBILGETU UKIEZINA ETA MATERIALA

Inbertsio errealak

Hona hemen Inbertsio errealak aitortutako obligazioen, ekitaldian egikaritzeko dauden konpromisoen eta datozen ekitaldietarako hitzartutako kredituen xehapena:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan		
	Obligazioak	D-O Fasea	Konpromiso k.
Lursailak.....	386	-	-
Hornidura lanak	19.003	1.749	10.125
Hornidurarako laguntza teknikoak	874	164	737
Saneamendu lanak.....	11.409	2.271	10.601
Saneamenduko laguntza teknikoak	1.324	497	1.035
Euskarri Teknologiko eta Berrikuntza laguntza teknikoak	212	96	689
Eraikinak eta bestelako eraikuntzak.....	2.468	494	6.659
Instalazioak, lanabesak eta erremintak	9.616	828	13.900
Ibilgailuak	94	-	446
Altzariak	43	-	-
Informatikako ekipoak	433	34	106
Beste ente publiko batzuentzat kudeatutako inbertsioak.....	775	202	-
GUZTIRA	46.637	6.335	44.298

Inbertsioen analisisa Ondasun eta zerbitzuen kontratazioa A.14 atalean egiten da.

Ibilgetu ukiezina eta materiala

	Euroak milakotan				
	Saldoa 2016.1.1	Zuzkidura	Altak/ Bajak	Beste batzuk	Saldoa 2016.12.31
Ukiezina.....	67.209	3.354	-	162	70.725
Materiala	1.195.469	47.643	(204)	(162)	1.242.746
KOSTUA GUZTIRA	1.262.678	50.997	(204)	-	1.313.471
Ukiezina.....	(42.029)	(3.255)	-	-	(45.284)
Materiala	(357.065)	(32.807)	22	-	(389.850)
AMORTIZAZIO FUNTSA GUZTIRA	(399.094)	(36.062)	22	-	(435.134)
IBILGETU GARBI UKIEZINA GUZTIRA	25.180				25.441
IBILGETUA. GUZT. AMORTIZAZIO FUNTSA KENDUTA	838.404				852.896

51 milioi euro egin dituzten ibilgetuko altek inbertsio errealean kapituluan erregistraturiko obligazio guztiekiko 46,6 milioi euroren aldeba dute, honako eragiketa hauen ondorioz:

- Nerbioi Ibaizabalen, Bolueta-Urbi tartean hodi biltzailea egiteko proiektuaren lanak eta instalazioak (2. Fasea), BBUPri Eusko Jaurlaritzak emandakoak eta 5,2 milioi euroren zenbatekoan balioztatuak (ikus A.9).
- Beste entitate batzuentzat egindako inbertsioak eta Izakinetan 775.000 euroren zenbatekoarekin ondarean erregistratuak.

A.6 EMANDAKO TRANSFERENTZIAK ETA DIRU-LAGUNTZAK

Hona hemen transferentzia arruntek eta kapitalezkoek eragindako gastuak, kontzeptuen arabera xehakaturak:

TRANSFERENTZIAK ETA DIRU-LAGUNTZAK	Euroak milakotan	
	2016	2015
Gizarte kuotak erakundeetan.....	39	38
Bestelako txikiago batzuk	-	1
TRANSFERENTZIA KORRONTEAK	39	39
Udalerri laguntza emateko plana.....	857	576
Sestaoko Udalari.....	227	-
2. mailako sarea hobetzea, Udal Sareak, SAko udalerrak hornitzeko	64	230
KAPITAL TRANSFERENTZIAK	1.148	806

BBUPren Batzar nagusiak 2016ko uztailean hitzarmena izenpetu zuen Sestaoko Udalarekin, zeinaren indarrez, besteak beste, 12 urteko epean 6,6 milioi euroren ekarpena egiteko konpromisoa hartu zuen, udalerraren hiri-sarea hobetzeko lanetan laguntzeko, ura banatzeko sarea hobetu eta birjartzeko, gune kaltetuak berreskuratzeko, udal ekipamenduak

hobetzeko eta energia aurreztu eta iraunkortasuna bermatzeko sistemak ezartzea xede duten ekintzak gauzatzeko. Hitzarmenean ekarpen hauek justifikatzen dira Galindoko Hondakin Uren Araztegiaren kokaleku, funtzionamendu eta jarduerak eragindako zama eta onurak banatzean oreka eskuratzea helburu hartuta, udalerrri erabiltzaile guztien artean. 2016ko ekitaldian 900.000 euroren aurrekontuko diru-izendapena dago eta Konpromiso kredituen egoerak ez du ematen 5,7 milioi euroren zenbatekoan bere egindako etorkizuneko konpromisoen aurrekontuko likidazioaren berri.

2016ko apirilaren 12ko BBUPren Batzar Nagusiak onartu zuen jarraipena ematea “Udal Sareak, SA osatzen duten udalerrrien hornidurako bigarren mailako sarea birjartzeko planen egikaritzea sustatzeko laguntza plana”ri; Plana 2014-2015 aldirako onartu zen milioi 1 euroren zenbatekoarekin (2016ko ekitaldian planaren egikaritzea 63.660 eurorena izan da). Aipatutako plana 2 milioi gehiagorekin handitu da eta erabiltzeko epea 2018ko abenduaren 31ra artekoa du; gainera, hasierako planetik erabiltzeko dagoen 642.974 euroren saldoa txertatu zaio. 2016ko ekitaldiko aurrekontu arruntak barne hartzen du konprometitutako kredituaren fasean hasierako planeko udalerriek erabiltzeko duten zenbatekoa kontsignatzea, 660.731 euroren zenbatekoan. Batzar Nagusiak onartutako 2 milioi euroren zabalkuntza 2016-2018 aldirako ez da konpromiso kredituen egoeran jasotzen.

A.7 FINANTZA INBERTSIOAK ETA FINANTZA AKTIBOEN BARIAZIOA

Finantza inbertsioen xehapena eta mugimendua ekitaldian honako hau da:

	Euroak milakotan				Saldoa 2016.12.31
	Saldoa 2016.1.1	Gastuak	Sarrerak	Beste b.	
Udal Sareak, SAn partaidetza	601	-	-	-	601
Bilboko Urak, SAn partaidetza.....	1.170	-	-	-	1.170
Bilboko Urak, SAn partaidetzaren narriadura	(284)	-	-	(21)	(305)
Aguas del Gran Buenos Aires, SAn partaidetza.....	10.820	-	-	-	10.820
Aguas del Gran Buenos Aires, SAn partaid. narriadura	(10.820)	-	-	-	(10.820)
TALDEKO ENTITATEENTZAT EPE LUZ. FINAN. INBERTS.	1.487				1.466
Epe luzeko zorraren balio adierazgarriak	13.300	9.532	(9.500)	-	13.332
Epe luzeko kredituak langileentzat	362	173	-	(194)	341
Zorraren balio adierazgarrien epe luzeko interesak	532	-	-	(205)	327
Epe luzera eraturako bermeak.....	2	-	-	(2)	-
Epe luzera eraturako gordailuak.....	326	-	(30)	21	317
EPE LUZEKO FINANTZA-INBERTSIOAK	14.522				14.317
Epe laburreko zorraren balio adierazgarriak.....	-	1.997	-	-	1.997
Langileentzat epe laburrerako kredituak.....	107	-	(107)	194	194
Zorraren balio adierazgarrien epe laburreko interesak	-	-	-	91	91
Epe laburreko beste finantza-inbertsio batzuk	-	-	-	4	4
EPE LABURREKO FINANTZA-INBERTSIOAK	107				2.286
AURREKONTUKO GASTUAK ETA SARRERAK GUZTIRA		11.702	(9.637)		

Taldeko entitateetan epe luzeko finantza inbertsioak

Balantzeko idazpuru honi dagokionez, honako alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

- Udal Sareak, SAn partaidetza % 100ekoa da eta kostuko prezioarekin 601.000 euroren zenbatekoan balioztatua dago.
- Bilboko Urak, SAn partaidetza % 51koa da eta kostuko prezioan dago balioztatua 1,2 milioi euroren zenbatekoarekin; ordea, partaidetzaren balioa kontularitzako balio garbiari doitzeko 305.000 euroren zuzkidurarekin minoratu da. 2016ko ekitaldiaren hornidurarako zuzkidura 21.000 eurorena da.

BBUPk Bilboko Urak, SAREN kapitalaren % 17,7 laga zien bi entitateri parte-hartze kontuetan eta 300.000 euroren zenbateko hori Pasibo ez arrunteko “Taldeko entitateekiko zorrak” kontuan islatu zen.

- Aguas del Gran Buenos Aires, SAn % 20ko partaidetza zuen, 10,8 milioi euroren kostuko prezioa zuena; ehuneko hori osotasunean laga zuen partaidetza kontuen bitartez (% 10 Bilboko Urak, SARI laga zitzaion). eta BBUPren ibilgetuan % 100eko zuzkidura du. Sozietate hau likidazioan dago eta BBUPren benetako partaidetza Bilboko Urak, SAREN bitartez % 3,33koa da.
- Bilboko Urak, SAREN oroitidazkian jasotako informazioa ekarri nahi dugu hona, izan ere bertan esaten da 2006ko uztailean Buenos Airesko Probintziako Gobernadoreak 1666 Dekretua izenpetu zuela eta horren indarrez Aguas del Gran Buenos Aires, SAREkin egindako emakida kontratua bertan behera uzteko agindu zela, zeinetan Bilboko Urak, SAK partaidetza kontuen bitartez parte hartzen duen. 2007ko uztailean Inbertsioei buruzko Aldeak Bideratzeko Nazioarteko Zentroak arbitraje-eskaera jaso zuen Argentinako Errepublikaren aurka; horren ondorioz, ezetsi egin ziren 2012ko abenduan honek aurkeztutako salbuespenak eta eskudun aitortu zuen bere burua arbitraje-epaia jaulkitzeko. Epaimahaiak eztabaidatu ostean, 2016ko abuztuaren 17an prozeduraren itxiera deklaratu zuen eta aldeei erabakiaren berri 2016ko abenduaren 8an eman zitzaion. Erabaki horrek barne hartzen du, besteak beste, Argentinako Errepublikari agindua, demandatzaileei ordaintzeko epaiketa-aldiarekin lotutako legezko ordainsariak eta gastuak, 400.000 USDren zenbatekodunak, eta demandatzaileek Epaitegiari ordaindutako atala, epaiketa fasean kostuen aurrerapen gisara, 647.000, USDren zenbatekoduna, gehi % 3ko urteko interesa, laudoa jaulki eta hurrengo 60. egunetik aurrera kontatuta. Berebat, zati berdinetan ordainduko dituzte demandatzaileek eta Argentinako Errepublikak aldi jurisdikzionala amaitzen denetik aurrera Epaitegiak egindako gastuak, arbitrioen zerbitzu-sariak eta gastuak barne direla. Egungo datan, gauzatzeko dago Laudoa.

Finantza inbertsioak

Atal honetan zor publikoan epe luzera egindako inbertsioak gailentzen dira, 13,3 milioi euroren zenbatekoan, eta zor publikoan epe laburrera egindakoak, 2 milioi euroren zenbatekoan.

A.8 TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

Hona hemen tasa eta bestelako sarrerengatik kitatutako eskubideak, kontzeptuen arabera xehakatuak:

TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK	Euroak milakotan	
	2016	2015
Lehen mailako sarera ura hornitzeagatiko tasa.....	25.733	27.536
Abonatuen saneamendu tasa	52.104	50.850
Industrien saneamendu tasa	5.637	5.999
Ur hornidura 2. mailako sarean eta harguneak Udal Sareak, SAREN sareak kudeatz. udalerrietan	16.737	15.507
Kontagailuen parkea	3.761	3.623
Diru-bilketa sariak.....	1.715	2.086
Udalen ekarpenak	1.210	1.566
Bestelako sarrera txikiagoak	1.454	1.258
GUZTIRA	108.351	108.425

Aurrekontuaren likidazioak ekitaldian fakturatutako hornidura eta saneamendu tasaren kontzeptuko diru-sarrerak barne hartzen ditu, faktura dataz lehenagoko hiruhilekoaren irakurketei dagozkienak. Horregatik, 2016ko ekitaldiaren itxieran aurrekontuan jasotzeko daude 2016ko ekitaldiko azken hiruhilekoari dagozkion diru-sarrerak, 13,6 milioi euroren zenbatekoan (ikus A.10); jasoak daude, baina, 2015eko azken hiruhilekoari dagozkionak, 13 milioi eurorenak.

A.9 KAPITAL TRANSFERENTZIEK ETA DIRU-LAGUNTZEK ERAGINDAKO SARRERAK

Hona hemen kapital transferentziek eragindako aurrekontuko sarrerak, kontzeptuen arabera:

TRANSFERENTZIA ETA DIRU-LAGUNTZEK ERAGINDAKO SARRERAK	Euroak milakotan	
	2016	2015
Bizkaiko Foru Aldundia	38.349	41.055
URA- Uraren Euskal Agentzia.....	773	4.430
Bestelako txikiago batzuk	76	626
GUZTIRA	39.198	46.111



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Egoeraren balantzeko “Emaitzetara egozteko dauden ondareko beste igoera batzuk”en kontuen mugimendua honakoa da (ikus A.11):

	Euroak milakotan			
	2016.1.1 saldoa	Gehigarriak	Emaitzari aplikatzea	2016.12.31 saldoa
Bizkaiko Foru Aldundia	321.937	38.349	(11.670)	348.616
Eusko Jaurlaritza.	96.454	5.878	(4.388)	97.944
Beste erakunde batzuk	27.533	84	(1.457)	26.160
Beste enpresa batzuk.....	1.334	(156)	(88)	1.090
GUZTIRA	447.258	44.155	(17.603)	473.810

Pasiboko kontuaren 44,2 milioi euroren gehikuntzen eta aurrekontuko sarreraren 39,2 milioi euroren arteko aldea, nagusiki, kontularitzako balio garbiari zor zaio, 5,2 milioi eurorena dena, Nerbioi-Ibaizabal hodi-biltzailearen proiektuan, Bolueta-Urbi zatian (2. fasea), jasotako obra eta instalazioena, BBUPri Ura-Uraren Euskal Agentziak entregatu diona; ondasun horiek Ibilgetuan erregistratu dira.

17,6 milioi euroren zenbatekoa ekitaldiaren emaitzari aplikatzea bat dator diru-laguntzak egozteagatik sarreraren kontuekin, ibilgetu ez finantzarioan 16,9 milioi euroan eta aktibo korranteetan 711.000 euroan.

Bizkaiko Foru Aldundiarekiko hitzarmena

BFAk eta BBUPk 2008ko ekitaldian hitzarmen bat izenpetu zuten saneamendu eta hornidura lanak finantzatzeko. 2016ko ekitaldian bi aldaketa egin dira eta urtebetez luzatu da hitzarmenaren iraupenaldia, 2019ko ekitaldira arte, eta urtekoen zenbatekoa birbanatu da, BFAtik jaso beharreko diru-laguntzaren guztizko zenbatekoa aldatu gabe, 381 milioi alegia. 2016ko abenduaren 31n metatutako zenbatekoa 291 milioi eurorena da eta hiru urteko gelditzen dira guztira 90 milioi euroren zenbatekoan, 201ko urtera arte.

Hitzarmenak agintzen du urtekoa dela BFAk finantza dezakeen gehiengo zenbatekoa hiru ekitaldietako bakoitzean. BBUPk 2016ko abenduaren 31n aitortu dituen sarrerek 15,8 milioi euroan gaintzen dituzte 2016ko abenduaren 31ra arte hitzarmenean aurreikusitako urtekoak. Alde hau urtekoen gainetik egikaritutako inbertsioei dagokie eta 2017ko ekitaldian kobratuko da.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.10 ZORDUNAK ETA KOBRATZEKO BESTE KONTU BATZUK

Hona hemen Balantzeko epigrafe honen xehetasunak:

	Euroak milakotan			
	Aurrekontukoak	Aurrekontuz kanpokoak	Beste batzuk	GUZTIRA
Aurrekontu arruntaren zordunak	26.660	-	-	26.660
Aurrekontu itxien zordunak	4.811	-	-	4.811
Kredituen balio narriadura	(6.008)	.	.	(6.008)
Eragindako BEZarengatiko zordunak	-	1.274	-	1.274
Zorpetutako sarrereng. zordunak, faktura zain (ikus A.8)	-	-	13.554	13.554
Epe laburrera eratutako bermeak	-	3	-	3
Foru Ogasun zorduna BEZagatik	-	3.702	-	3.702
ZORDUNAK GUZTIRA	25.463	4.979	13.554	43.996

Aurrekontu itxietako zordunak nagusiki “Tasak eta bestelako sarrerak” kapitulukoak dira, 4,6 milioi euroren zenbatekoan eta horietatik 3 milioi euro 2014ko ekitaldikoak eta lehenagokoak dira.

2016ko ekitaldi itxieran zalantzazko kobragarritasuneko saldoen kontzeptuko zuzkidura, 6 milioi eurorena, bigarren mailako sareari dagokionez 2012 eta lehenagoko zordunen % 100ekin bat dator, % 75ekin 2013 eta 2014rako, % 50ekin, 2015eko urterako % 25arekin, 2016rako. Gainerako zordunei dagokienez, % 100ean zuzkitzen dira 24 hilabetetik gorako antzinatasuna duten saldoak.

A.11 FUNTS PROPIOAK

2016ko ekitaldirako Aldundiko Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra aplikatuta, Ondare Garbiaren idazpuruan “zenbait ekitalditan banatzeko sarrerak” barne hartzen dira; ordea, Toki Entitateen Kontabilitate Planean bereizitako idazpuruan erregistratzen dira. Honela, bada, Kontu Orokorren Oroitidazkiko 2.2 oharra ematen du egitate hauen berri eta berriaz adierazten du 2016ko urtarrilaren 1ean Ondare Garbia 1.026,5 milioi eurorena dela.

	Euroak milakotan	
Ondarea		145.557
Lagapenean jasotako ondarea		47.370
Ekitaldi itxien emaitza, gehi 2015eko ekitaldiaren emaitza		180.884
2015-EKO EKITALDI ITXIERAN ONDARE GARBIA		373.811
2015-EKO EKITALDI ITXIERAN HAINBAT EKITALDITAN BANATZEKO SARRERAK		652.614
ONDARE GARBIA 2016-KO URTARRILAREN 1-EAN KONTAB. PLAN BERR. EZARTZEAG.		1.026.425
2016ko ekitaldiaren emaitza		8.173
Ekitaldiari egozteko bst. igoera batzuk: ekitaldian jasotako kapital diru-lag.	A9	44.155
Ekitaldiari egozteko dauden beste igoera batz.: Diru-lag. emaitzari aplikatzea	A9	(17.603)
Ekitaldi itxietako zordunen baliogabetzeak		(720)
ONDARE GARBIA 2016-KO ABENDUAREN 31-N		1.060.430



A.12 ZORRAK ETA HARTZEKODUNAK ETA ORDAINTZEKO BESTE KONTU BATZUK

Hona hemen epe luze eta laburreko Zor kontuen xehakapena ez ezik, Hartzekodun eta ordaintzeko beste kontu batzuen ere:

	Euroak milakotan			
	Aurrekontukoak	Aurrekontuz kanpokoak	Beste batzuk	GUZTIRA
Epe luzera jasotako ordaindutako berme eta gordailuak	-	1.136	-	1.136
Epe luzeko zorrak	-	1.136	-	1.136
Epe laburrera jasotako bermeak eta gordailuak	-	989	-	989
Mugaegun motzeko diru-laguntza itzulgarriak	-	-	100	100
Zorrak epe laburrera	-	989	100	1.089
Aurrekontu arruntaren hartzekodunak	9.664	-	-	9.664
Aurrekontu itxien hartzekodunak	101	-	-	101
BEZarengatiko hartzekodunak	-	1.838	-	1.838
Sortutako gastuengatiko hartzekoduank, faktura zain	-	-	1.365	1.365
Bestel. hartzek. ez aurrekontukoak	-	232	-	232
Aplikatzeko dauden sarrerak	-	-	16.032	16.032
Eraikitako edo besteentzat erositako aktiboeng. aurrerak	-	-	239	239
Gizarte Segur. org. 2016ko abendua eta bizi aseguruak	-	85	-	85
PFEZagatiko Foru Ogasun hartzekoduna 2016ko abendua	-	495	-	495
Hartz. eta ordaintz. beste kontu batz	9.765	2.650	17.636	30.051
ZORRAK ETA HARTZEKODUNAK GUZTIRA	9.765	4.775	17.736	32.276

“Aplikatzeko dauden sarrerak” kontuak ekitaldiko hirugarren hiruhilekoaren diru-bilketari dagozkion diru-sarrerak barne hartzen ditu, zeinaren likidazioa partzuergoan bildutako udalekin gauzatzeke dagoen.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.13 AURREKONTUAREN ETA ONDARE EMAITZAREN ARTEKO BERDINKATZEA

Kontabilitate publikotik eskuratutako kontularitzako emaitzaren eta aurrekontuko emaitzaren arteko berdinkatzea honako hau da:

	Euroak milakotan
AURREKONTUAREN EMAITZA 2016	17.791
Inbertsio errealak	46.637
Inbertsio errealen besterentzea	(185)
Ibilgetua amortizatzeko zuzkidura	(36.065)
Ibilgetu materialetik eratorritako mozkinak	4
Finantza aktiboen aldaketa	2.065
Finantza inbertsioen horniduren bariazioa	(21)
Kapitalezko transferentziek eragindako sarrerak aurrekontuan	(39.198)
kapitalezko diru-laguntzak galdu-irabazietara egoztea	17.603
Biltegiko izakinen igoera	28
Zordunen zuzkidura kontuaren gehikuntza (6.008- 5.751)	(257)
Zordunen igoera jaulkitzeko dauden ordainagiriengatik (13.554 – 13.010)	544
Jasotzeko dauden ordainagirien hartzekodunak (1.365 – 842)	(523)
Beste finantza gastu batzuk ondarean eta ez aurrekontuan	(113)
Aurrekontuko transf. arruntak ondarean ondare garbian erregistratuak	(140)
Bestelako txikiago batzuk	3
EMAITZA 2016-KO KONTABILITATE PUBLIKOAREN ARABERA	8.173



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.14 ONDASUNEN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOAREN ANALISIA

A.14.1 KONTRATAZIO ESPEDIENTEAK

Euroak milakotan (BEZik gabe)

DESKRIBAPENA	Urtea	Esleipena		Egikaritza			Akatsa
		Prozed.	Zenbatek.	15/12/31	2016	16/12/31	
OBRAK							
1. Berriatua-Ondarroa hartunearen 2. fasea eraik. proiekt.	2013	PI	6.363	5.414	1.070	6.484	A, B, C
Osagarria	2016		808	-	774	774	
2. Galindoko HUA n goi-tentsioko lanak	2014	PI	15.980	11.451	4.423	15.874	A, B, C
3. By pass Undurragako presan, 2 zk. xehakapena	2014	PI	9.400	5.004	3.500	8.504	A, B, C
1. aldaketa	2016		591				
Osagarria	2016		919	-	169	169	
4. Butro eerdialdea saneatz. proi. 3. fasea; Gorordoko ponpaketa..	2014	PI	5.151	3.121	1.226	4.347	A, B, C
5. Gehi lehen m. sarea C. Enkartazioak l.zatia: Las Carreras-Areeta	2014	PI	11.943	4.400	5.980	10.380	A, B, C
1. aldaketa	2016		696				
2. aldaketa	2016		427				
6. Nerbioi ibaitik Bolueta ura ponpat. energia elek. ekoiz.	2014	PI	9.861	3.346	4.766	8.112	A, B, C
1. aldaketa	2016		841				
7. Garaizarko EUTE berri eta handitzeko proiektua	2016	PI	2.043	-	488	488	A
8. Galindoko HUA arbastu-estazioa zaharberritzea.....	2016	PI	4.117	-	-	-	A, B, C
9. Mungian ekaitzet. tanke proiekt. (Mung. HUA euri uren trat.)....	2016	PI	4.445	-	500	500	A, B, C
HORNIDURA							
10. BBUPko instalazioetara argindarra hornitzea	2015	PI	16.738	-	6.715	6.715	B, C
ZERBITZUAK							
11. Mungia, Gorniz, Bakioko saneamendu sistemak ustiatu eta mant. Larrab., Lemoiz, Unbe I eta II, Aresti II, Artebak. eta Andarak.....(*)	2013	PI	5.282	3.750	1.320	5.070	B
12. Saneam. sistemen ustiatu eta mantent.: Güeñes, Muskiz, Buia, La Arboleda, Triano, Kobarón, Alzuste, Ubidea, Venta Alta, Zierbena, Orduña, Artzentales eta Lanestosa.....(*)	2013	PI	6.081	3.871	1.356	5.227	B, C
13. Hornidurako sare nagusia ustiatu eta instal. eraikitzea	2013	PI	5.384	4.113	1.338	5.451	B, C
14. Ekialdeko edateko urak ustiatu eta tratatz. instal. manten.....(*)	2013	PI	5.440	3.943	1.302	5.245	B, C
15. Mendebaldeko edateko urak ust. eta tratatz. instal. manten.....(*)	2014	PI	6.732	2.594	1.630	4.224	B
16. Galindoko HUA mantentzeko lanak	2015	PI	3.220	387	1.456	1.843	C
17. Saneamenduko sare nagusia zaintzea, I. eremua.....(*)	2016	PI	7.780	-	1.108	1.108	C
18. Saneamenduko sare nagusia zaintzea, II. eremua.....(*)	2016	PI	4.072	-	590	590	C
19. Bigarren mailako kontagailuak irakurri eta ikuskatzea	2016	PI	3.178	-	535	535	B
GUZTIRA			137.492	51.394	40.246	91.640	

(*): Esleipenaren zenbatekoa 4 urteri dagozkio.

(**): Esleipenaren zenbatekoa 2 urteri dagozkio.

PI Arautze harmonizatuari meneratutako prozedura irekia, 7. zk. espedientean izan ezik, prozedura irekia baita.

AKATSAK

	Esped. kop.	Euroak milakotan (BEZik gabe)
A Ez da egiten proiektua gainbegiratzeko txostena	9	69.303
B Administrazio-klausula berezien agiriek irizpide modura "proposaturiko hobek. objekt." barne hartz. dituzte, horiek zein element. gainean eta zein baldintzatan balioztatuko diren zehaztu gabe.....	15	116.095
C Hilabetetik gorako atzeraldia proposamenak irekiz geroztik esleitzeko finkatutako epearekiko.	15	115.975



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.14.2 ADMINISTRAZIO KONTRATAZIORIK GABEKO GASTUAK

Administrazioko kontratazio espedienterik gabe izapidetutako gastuak aztertu ditugu eta hornitzaile bakarrarekin kontrataturiko gastuak azaleratu dira, ekitaldi guztietan errepikariak direnak eta honenbestez, planifikagarriak eta lizitazio prozedura batean barne hartzeko modukoak:

Deskribapena	Euroak milakotan
SCADA sistemen kontrol eta eguneratze zerbitzua (2 hornitzaile).....	(*)152
Aldi baterako lan-enpresa, bi pertsona kontratatzea.....	100
Material elektrikoaren hornidura eta automatizazioa	(*)39
Material elektrikoaren hornidura eta iturgintza.....	(*)35
Euskarazko itzulpenak.....	(*)37
Garbiketa zerbitzuak.....	(*)34
Galindoko HUAN talde motosortzaileak mantentzea	30
Suteen kontrako sistemen mantentze legezkoa eta birtinbratzea.....	25
Tamizen konponketa	24
Tratamendu fisiko-kimikorako lantegia inst. eta ustiatzea.....	22
Industri higienarako berezit. hitzarmena	19
Galindoko HUAN hondakin ez arriskutsuen urteko kudeaketa zerbitzua	19
GUZTIRA	536

(*): Gerora zerbitzu hauetarako kontratazio espedienteak izapidetu dira.



B UDAL SAREAK, SA

B.1 BBUP-K UDAL SAREAK, SA-REN ALDE EGINDAKO MANDATUAK

2000ko maiatzaren 9an BBUPren Batzar Nagusiak Udal Sareak, SA sozietatea eratzea erabaki zuen, udal urak hornitzeko sareen kudeaketa integrala gauzatuko zuena; sozietatea 2000ko ekainaren 16an sortu zen. Helburu hori tarte, BBUPn honako erabaki hauek hartu ziren:

- 2000ko urriaren 11n Zuzendaritza Batzordeak onartu zituen BBUPk Udal Sareak, SARI egindako mandatuetan buru egingo zuten baldintza orokorrak eta prozedura onartu zuen eta Lehendakariari eta Gerenteari baimena eman zien sozietatearen alde mandatuak formalizatzeko.
- 2000ko azaroaren 23an Batzarrak Bigarren mailako Sareetan Jarduera Plana onartu zuen et Zuzendaritza Batzordearen esku utzi zuen udalekiko hitzarmenak onartu eta gauzatzea. Plan honen garapena eta hedapena gauzatzeko BBUPk hainbat mandatu egin zizkion Udal Sareak, SARI, udalekin hitzarmenak izenpetu ahala.

2015eko abenduaren 21ean BBUPren lehendakariak urtebetez luzatzea ebatzi zuen Udal Sareak, SAREN aldeko honako mandatu hauek:

- Lehendakariaren 2002ko otsailaren 20ko Dekretu bidez, Udal Sareak, SARI agindu zitzaion fakturatzeko azken erabiltzaileei BBUPren tasak ez ezik, baita BBUPk udalen kontura kobratzen dituen beste zerbitzu batzuei dagozkienak ere. Mandatu hau egikaritzako, BBUPk ordura arte beste sail batzuekin gauzatzen zituen egitekoak beteko ditu: abonatuak kudeatzeko sailarekin (kontagailuen irakurketa, unitateen eta fakturatzeko tasen zenbatekoen kalkulua, fakturak jaulki eta banatzea, kobratzeko gestioak, e.a.); datuak prozesatzeko sailarekin; kontabilitatea eta diruzaintzako sailekin; honenbestez, mandatu honek ez dakarkio kostu osagarria Udal Sareak, SARI, ez eta BBUPri osotara.

BBUPk BEZarekin fakturatzen dio Udal Sareak, SARI honek erabiltzaileei fakturatzen dien zenbateko bera eta honenbestez, ez du eraginik Sozietatearen emaitzen kontuan. Bada, "Ustiakeako beste sarrera batzuk" eta "Ustiakeako beste gastu batzuk" kontu-sailetan 89,3 milioi euro erregistratu dira (kontu honen saldoa guztira, beste eragiketa osagarri batzuen kontzeptuan 89,5 milioi euroena da).

- 2005eko otsailaren 2an mandatu bat izenpetu zen, zeinak ordura arte txertatutako udal guztiak eta partzuergoan elkartutako beste udalerrri batzuk besarkatzen zituen, BBUPrekin zegokion hitzarmena gauzatuko bazuten. Mandatuaren epea bat dator hitzarmen ezberdinetatik eratorritako hitzarmenekin. Mandatuak aurreikusten du Udal Sareak, SAK justifikaturiko berrikusketa proposatuko duela aipatutako baldintza ekonomikoena, dela gorantz, dela beherantz; horren helburua da -hitzartutako eta denboran zehar hitzartu daitezkeen eta baita ekitaldi bakoitzerako ere- hitzarmenen indarrez BBUPk bere gain hartutako jardueren kudeaketak eta garapenak eragiten dituzten egiazko gastuetara egokitzea.



2016ko abenduaren 31n lankidetza hitzarmenak izenpetu dituzte BBUP osatzen duten 80 udaletatik 67rekin, edateko ura banatzeko tokiko bigarren mailako sarea kudeatu, mantendu, ustiatu eta birjartzeko.

- 2006ko otsailaren 7an mandatua izenpetu zen BBUPren prozesu eta instalazioetan hobekuntzak eta handitzeak aztertu eta gauzatzeko laguntza teknikoa emateko. Mandatu honen iraupena 24 hilabetekoa zen, urtekoetan luzagarria.
- 2014ko urtarrilaren 2an mandatua izenpetu zen BBUPk Sestaon Galindoko HUari esleitutako udalerrietan saneamendu sareen zerbitzurik jasotzen ez duten eremuetako putzu septikoetatik datozen hondakin likidoak hustu, garbitu eta garraiatzeko zerbitzua kudeatzeko Mandatu honen iraupena urtebetekoa izan zen, urtekoetan luzagarria.

Udal Sareak, SAK erregistraturiko negozio zifraren zenbateko garbia, 6,6 milioi eurorena, honako mandatu hauei dagokie:

	Euroak milakotan
	Zenbatekoa
2005.2.2ko mandatua	6.489
2006.2.7ko mandatua	74
2014.2.2ko mandatua	51
GUZTIRA	6.614

B.2 LANGILERIA-GASTUAK

Langile gastuak honako hauek dira, kontzeptuen arabera xehakatuak:

	Euroak milakotan	
	2016	2015
Ordainsariak	790	768
Gizarte Segurantzza	180	179
LANGILERIA GASTUAK, GUZTIRA	970	947

Plantillaren xehakapena ekitaldi itxieran honakoa da:

	Euroak milakotan	
	2016.12.31	2015.12.31
Zuzendariak	2	2
Teknikariak	8	8
Administratibo erako enplegatuak	2	2
Gainerako langile kualifikatuak	3	3
LANGILEEN PLANTILLA GUZTIRA	15	15



2016ko ekitaldian ordainsari igoera % lekoa izan da. 2016ko ordainsarietan 2012ko ekitaldiko abenduko aparteko ordainsariaren % 49,73 ordaintzea barne hartzen da, gainerakoa aurreko ekitaldietan ordaindua dela; honenbestez, ez dago ordaintzeko saldirik 2016ko ekitaldi itxieran.

Sozietateak 55.825 euro ordaindu ditu helburuen araberako urteko ordainsari aldakor kontzeptuan, hitzarmenean aurreikusia zegoena eta oinarritzko soldata eta destino eta berariazko osagarriaren % 8ren baliokide dena, helburu orokorrak (balorazioaren % 60) eta helburu zehatzak (balorazioaren % 40) betetzeagatik. Honez gain, 14.394 euroren zenbatekoa ordaindu da guztira, helburuak betetzeagatiko ordainsari kontzeptuan, ordainsari guztien % 2ren pareko dena; ordainsari hori BBUPren hitzarmenean aurreikusia dago eta Sozietatearen hitzarmeneko bigarren xedapen gehigarria baliatuta ordaintzea erabaki da; hona hemen testuak zer dioen: “Udal Sareak, SAK konpromisoa hartzen du hitzarmen honi berehala gehitzea BBUPk onartzen duen zeinahi aldaketa, hau da, izan hobekuntzak, izan bestelako zeinahi bariazio”. Ez zaio Sozietatearen hitzarmenari txertatu BBUPren helburuen araberako ordainsaria.

Sozietatearen hitzarmenak lanbide garapeneko sistema bat ezartzea jasotzen du, bertako bigarren xedapen gehigarria aplikatuta, eta BBUPren hitzarmenak bezalaxe, betetako lanaren ebaluazioari meneratutakoa, gardentasun, objektibotasun, inpartzialtasun eta bereizkeria ezaren irizpideen bidez neurtuko dena.

B.3 HORNIDURAK

Hona hemen kontzeptuen arabera xehakatutako hornidurak:

	Euroak milakotan	
	2016	2015
Kontrola eta zuzendaritza	403	377
Takadu zerbitzua	139	139
A eremuko hornidura sarea mantentzea	1.019	975
B eremuko hornidura sarea mantentzea.....	1.261	1.081
C eremuko hornidura sarea mantentzea	929	839
lhesak auskultatzea.....	164	163
Presioen gaineko kontrola.....	112	72
Bigarren mailako sarean inbertsioak.....	944	433
Gastu kopuru txikiagoko beste kontzeptu batzuk	403	473
HORNIDURAK GUZTIRA	5.374	4.552



B.4 ONDASUN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOAREN ANALISIA

DESKRIBAPENA	Euroak milakotan (BEZik gabe)				
	Esleipena			Egikaritzea	
	Urtea	Prozed.	Zenbatekoa	2016	Akatsa
OBRAK					
1. Udal gordailuen zaintza, II. blokea	2016	Irekia	317	201	
2. Larreta auzoan hornidura sarea hobetzea	2016	Irekia	225	83	
3. Zaldibarren iturburuko uraren hartunea kentzea	2016	Irekia	190	69	
4. Berangon Sustatxako iturburua kentzea.....	2016	PPN	111	41	
ZERBITZUAK					
5. B eremuko 2. mailako horn. sareet. matxurak ust., mant. eta kudeatzea (2 urte eta 2 luzapen).....	2013	Irekia	(*) 2.124	1.261	A
1. espediente aldatua	2015		142		
2. espediente aldatua	2016		52		
6. Ingeniaritzako obra zuzendaritza, proiekt. idaztea (2 urte eta 2 luzapen)	2013	Irekia	(*) 446	241	A
7. Datu telemat. oinarrit. hornid.sareen kudeak. (2 urte eta 2 luzapen)	2013	Irekia	(*) 278	139	
8. C eremuko 2. mailako horn. sareet. matxurak ust., mant. eta kudeatzea (2 urte)	2016	Irekia	2.295	727	
GUZTIRA			6.180	2.762	
(*)): Esleipenaren zenbatekoa kontratuaren bi urteei dagokie Bi luzapen daude eta bigarrena 2016an esleitu da.					
PPN Publikotasundun prozedura negoziatua kontratatzailearen profileen.					

A	Esleip. Euroak milakotan (BEZik gabe)		
	Esped. zk.	Zenbatekoa	
A	Pleguetan aurreikusitako prezio berrikusketa ez da zehazten.....	2	2.570



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

C FINANTZA EGOERA BATERATUAK

2016ko ekitaldiko BBUPren Kontu Orokorrak bateratutako finantza egoerak barne hartzen ditu (Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoa, Udal Sareak, SA eta Bilboko Urak, SA)

A. Balantze bateratua 2016ko abenduaren 31n Euroak milakotan

	Ekitaldia 2016		Ekitaldia 2016
AKTIBOA		ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	
AKTIBO EZ ARRUNTA	892.728	ONDARE GARBIA	1.060.431
Ibilgetu ukiezina.....	25.450	Ondarea	413.170
Ibilgetu materiala.....	852.961	Sortutako ondarea.....	173.451
Taldeko entit. epe luz. finantza inbert.	-	Bstel. ondare hazk. emaitz. egozteke.....	473.810
Finantza inbertsioak epe luzera	14.317		
		ZIRKULATZAILEA EZ DEN PASIBOA	1.436
		Epe luzeko zorrak	1.136
		Taldeko erakundeekin zorrak	300
AKTIBO ARRUNTA	200.226	PASIBO ARRUNTA	31.087
Izakinak	1.301	Epe laburreko zorrak.....	1.089
Zordunak eta kobr. bst. kontu batzuk	43.827	Hartzekod. eta ordaintz. beste kontu batzuk.....	29.998
Epe motzeko finantza inbertsioak	2.298		
Eskudirua eta bestelako aktibo baliokideak	152.800		
AKTIBOA, GUZTIRA	1.092.954	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA	1.092.954

B. 2016ko Ondarearen Emaiza Ekonomikoaren Kontu bateratua Euroak milakotan

	Ekitaldia 2016
Tasen zerga sarrerak	100.663
Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak.....	17.757
Amaitutako eta fabrikazioan dauden produktuen izakinak gehitzea.....	775
Kudeaketa arrunteko bestelako sarrerak	7.808
Kudeaketa arrunteko sarrerak guztira	127.003
Langileria-gastuak.....	(25.887)
Transferentziak eta emandako diru-laguntzak.....	(1.187)
Hornidurak	(8.523)
Kudeaketa arrunteko bestelako gastuak	(47.802)
Ibilgetuaren amortizazioa.....	(36.115)
Kudeaketa arrunteko gastuak guztira	(119.514)
KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA	7.489
Balio narriad. eta ibilgetu ez finantz. eta salgai dauden aktiboak bestereng. emaitzak	4
Arruntak ez diren beste kontu sail batzuk	45
ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK	7.538
Finantza sarrerak.....	1.005
Finantza gastuak.....	(113)
Balioaren narriadura, bajak eta finantza-aktibo eta -pasiboen besterentzeak	(257)
FINANTZA ERAGIKETEN EMAITZAK	635
EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA	8.173



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

BILBAO-BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN 2016KO FISKALIZAZIO EMAITZEN AURREAN HERRI KONTUEN EUSKAL EPAITEGIAK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

A) TXOSTENAREN ONDORIOEI BURUZKO ALEGAZIOAK

1. ALEGAZIOA

III. KUDEAKETA PROZEDUREI ETA BARNE KONTROL SISTEMEI BURUZKO OHARRAK

III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

KONPROMISO KREDITUAK

- *Inbertsio errealen aurrekontuan konprometitutako kredituek gainditu egiten dute kapituluaren aurrekontu mugatzailea, ez direlako izapidetu kredituak aldatzeko kasuan kasuko espedienteak; hala, konpromiso kredituen aurrekontu betearazpenaren erregistroa egitean ekitaldi bakoitzerako araudian konpromiso kredituetarako ezarritako muga hartzen da kreditu eskuragarri gisa.*

Alegazioak

- Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko (BBUP) konpromiso kredituen egoera onartzeko erakunde eskuduna Batzar Orokorra da. Aipatutako organoa BBUPeko 80 udalerrietako kideek osatuta dagoenez, batzar horren ohiko deialdiak urtean bi aldiz egiten dira.

Gauzak horrela, ezinezkoa da konpromiso kredituen egoera eguneratuta mantentzea eta inbertsio programen bilakaera bizia bateratzea. Hala ere, horrek ez du eragozten ekitaldian zehar hartzen diren konpromiso kredituak kontrolatzean proiektu bakoitzaren onarpena erabiltzea.

Horren haritik, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren txostenean ageri den moduan, onartutako konpromiso kredituaren urteko bakoitzaren zenbatekoak ez du gainditu finantzaketa propioak zein besteen finantzaketak lege ezarritako muga; hortaz, ez da aurrekontu edo finantza arriskurik egon.

- Hala ere, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren gomendioei jarraiki, 2018ko apirileko Inbertsioen Plana onartzean jaso egin da 2018 konpromiso kredituen egoera berri eguneratua.

Horren haritik, 2018tik aurrera konpromiso kredituen egoerak urtero hiru unetan onartuko dira:

- Aurrekontuak onartzerakoan
 - Urteko kontuak likidatzerakoan
 - Inbertsioen Plana onartzerakoan
- Sinatutako hitzarmenei dagokienez, dagoeneko jasota daude 2018ko aurrekontuaren espedienteko konpromiso kredituen egoeran eta 2017ko likidazioan.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

2. ALEGAZIOA

III. KUDEAKETA PROZEDUREI ETA BARNE KONTROL SISTEMEI BURUZKO OHARRAK

III.2 LANGILEEN GASTUAK

- *BBUPek 2014ko ekitalditik aldi baterako laneko enpresa batekin modu jarraituan kontratatu ditu langile administrarien lanei lotutako zerbitzuen prestazioak; zerbitzu horiok bi langilek eman dituzte modu erregularrean, eta aipatutako beharrianak estaltzeko ez dira erabili existitzen diren lan poltsak.*

Alegazioak

Lan merkatua zaharberritzeko presako neurriei buruzko irailaren 17ko 35/2010 Legeak, 17. artikulua bitartez, zenbait aldaketa ekarri zituen Aldi baterako laneko enpresak arautzen dituen ekainaren 1eko 14/1994 Legeari dagokionez; besteak beste, laugarren xedapen gehigarria aipatu behar da, eta, bertan ezarrienez, “2011ko apirilaren 1etik aurrera aldi baterako laneko enpresek langileak lagatzeko kontratuak egiteko une honetan indarrean dauden muga edo debeku guztiak ezabatuko dira, Sektore publikoko kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen bosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoa barne, lege honetan ezarritako salbuespen bakarrarekin.” (...)

Bidenabar, Administrazio Publikoetarako salbuespen zehatz bakar gisa (legean bertan orokorrean aurreikusitakoez gain) laugarren xedapen gehigarrian xedatuenez, langileak lagatzeko kontratuak soilik sinatu ahalko dira lege mailako arau baten bitartez funtzionario publikoentzat erreserbatutako lanak egiteko.

Lege aldaketa honek erantzuna eman zion Aldi baterako laneko enpresen bitartez lan egiteari buruzko Europako Parlamentu eta Kontseiluaren 2008ko azaroaren 19ko 2008/104/EE Zuzentaraua ekartzeko beharrianari, LANEren Enplegu agentzia pribatuei buruzko 1997ko 181. Hitzarmenarekin bat etorritz.

Beraz, 2011ko apirilaren 1etik aurrera indargabetu egin ziren lehenago sektore publikoko kontratuen legedian ezarritako mugak, hain zuzen ere, administrazio publikoek aldi baterako laneko enprekin langileak lagatzeko kontratuak sinatzeko mugak, eta, zehazki, 30/2007 Legearen bosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoak; soilik lehen aipatutako salbuespenari eutsi zaio, legez funtzionario publikoei erreserbatutako lanak egiteko kontratazioari dagokiona.

Azaldutakoa ikusita, ondorioztatu da Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren txostenak aipatutako kontratazioak indarrean dagoen legediak aurreikusitako esparruaren barruan egin direla; izan ere, langileak lagatzeko kontratuak kasu guztietan bideratu ziren jendaurrean arreta emateko lan kontratudun langileen lanak premiaz egiteko, hain zuzen ere legearen erreserbaren eraginik ez zeukaten kasuetan.

Bestalde, Partzuergoak langileak berehala hartzeko beharriana justifikatuta egon denean baino ez du jo langileak lagatzeko salbuespen izaerako kontratuetara, kontratuaren iraupena laburra edo oso laburra izatea aurreikusi denean, eta, betiere, egiaztatu ondoren



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Partzuergoko lan poltsetan ez zegoela pertsona kualifikaturik eskuragarri bete beharreko funtzioak bete ahal izateko kontratatzeke.

Horri dagokionez esan behar da jendaurreko zuzeneko arreta SIGA erabiliz (Bazkideak Kudeatzeko Sistema Integratua) emateko funtzioak zirela; sistema oso zehatza denez, hilabeteko inguruko prestakuntza jaso behar da maila oinarritzkoeneko funtzioak modu autonomoan egin ahal izateko, eta bi hilabete inguruko prestakuntza, berriz, lan konplexuagoak egin ahal izateko. Hala, ez litzateke bat ere eraginkorra izango beharrezko prestakuntza ez daukaten langileak postu horietarako kontratatzea, langile horiek ezingo lituzketelako lanpostuko lanik oinarritzkoenak egin aldi horietan.

Horren haritik, lan poltsetako langileak zuzenean kontratatzea lehenestea izan da aplikatutako irizpidea; hala, aurreikuspenen arabera denbora tarte laburrerako langileak berehala hartu behar izan direnean, lehenik eta behin lan poltsara jo da, bertan alde aurretik kontratatzearen ondorioz oinarritzko prestakuntza daukaten eta eskuragarri dauden langileak izan diren kasuetan. Hala ere, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren txostenean aipatutako kasuan, horri buruz emandako txosten guztietan ere ageri den moduan, lan poltsetan ez zegoen aipatutako baldintzak betetzen zuen langilerik eskuragarri.

Kontratazioaren iraupena luzea izango zela aurreikusitako kasuetan, berriz (bitartekotasuna amatasun lizentzia tarteko, bitartekotasuna hutsik dauden plazak bete arte, errelebu kontratuak, etab.), lan poltsaren bitartez langileak kontratatzea jo da, hautagaiak egon direnean, eta beharrezko prestakuntza eman zaie (langile esperientziadunek gidatutakoa) jendaurreko arreta lanak modu autonomoan egiteko trebakuntza izan zezaten eta, horrenbestez, onartuz langile horiek ez zirela lanerako prest egongo harik eta prestakuntza osatu arte.

Beste alde batetik, martxoaren 9an Sektore publikoko kontratuen 9/2017 Legea indarrean sartzearen ondorioz, ulertu da ez zaiola zerbitzu horiek kontratatzeari eutsi behar, harik eta 308.2 artikuluan ezarritako aurreikuspenaren irismena argitzen den arte, dirudienez langileak lagatzeko zerbitzuak aldi baterako laneko enpresekin kontratatzea mugatzen baitu; horren eraginez, Partzuergoaren administrarien lan poltsa handitu egin da, eta SIGA prestakuntza prozesuak abiarazi dira, horiei esker tresna hori erabiltzeko trebatutako langileak izango baitira sor daitezkeen ordezkapen beharrezkoen berehala erantzun ahal izateko.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

3. ALEGAZIOA

III. KUDEAKETA PROZEDUREI ETA BARNE KONTROL SISTEMEI BURUZKO OHARRAK

III.2 LANGILEEN GASTUAK

- Zuzendaritza Batzarrak, 2016ko abenduaren 27ko bileran, hitzarmen kolektiboko aurreikuspenekin bat etorritz, 323.925 euroko funts ekonomikoa ordaintzea erabaki zuen, langileei helburuak betetzearen arabera ordaintzeko. Ordaintzeko justifikazioan hasieran aurreikusitako kudeaketa helburuei eustea aipatu da, zein ziren edo nola lortu diren zehaztu gabe; gainerako balorazioak, besteak beste, ohar global eta orokorrak dira, zerbitzuak handitzeari, fakturazio ehunekoak hobetzeari eta langileen inplikazioari buruzkoak.

Alegazioak

2016ko helburuen ordainsaria Partzuergoko Hitzarmen Kolektiboko 37. artikuluan dago araututa, eta bat dator 2016ko Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko urriaren 29ko 48/2015 Legearen 19. artikuluko zazpigarren atal in fine delakoan ezarritakoarekin.

Partzuergoko kudeaketa helburu kolektiboak ekitaldi horretan bete izana egiaztatu ondoren onartu zen.

Hala, Zuzendaritza Batzordearen 2016ko abenduaren 27ko Erabakiaren zioen azalpenean jasotako hainbat arrazoiren bitartez aipatutako helburuak betetzat jo ziren, eta arrazoi horiek labur-labur bildu badira ere, ez dira orokorrak berariazko zenbait mugari zehatz aipatzerakoan, adibidez:

“Teleirakurketa ekipamenduak areagotzea; Galindoko HUAN obrak egitea, esaterako bisitarien pabiloia, edo putzu septikoen harrera obrak; bidenabar, Mungiaiko ekaitz andeleko obrak egin dira, Berriatua-Ondarroa saneamendua; Undurragako presako bypass obrekin jarraitu da, Boluetako ponpatzea, saneamendu azpiegiturak Enkarterrin -Sopuerta eta Turtzioz-, Turtzioz eta Sopuertako araztegiak, hornidura azpiegiturak Enkarterrin, Butroe erdialdearen saneamendukoak, saneamendu obrak Aulestin edo Gorlizko hustubideko baheketak, besteak beste.

Bidenabar, irakurketa indizea lortuz egindako fakturazio ehunekoak nabarmen hobetu dira, bai irrati irakurketa sistema daukaten udalerrietan, bai sistema hori ez daukaten udalerrietan.”

Horren haritik, gogoratu behar da Zuzendaritza Batzordearen Erabakiak nabarmentzen duela ordainsariak lotura daukala helburuak betetzearekin, berariaz adierazienez “ordainsari bakar izaera izango du, ez da finkagarria izango eta ezingo da soldata tauletan ezarritako ordainketa kontzeptuekin bateratu; azken horiek aldaezinak dira”.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

4. ALEGAZIOA

III. KUDEAKETA PROZEDUREI ETA BARNE KONTROL SISTEMEI BURUZKO OHARRAK

III.2 LANGILEEN GASTUAK

- Idazkaritza, Kontu-hartzailtza eta Diruzaintza funtzioak lan kontratudun langileek garatzen dituzte, baina postuei emandako funtzioak tarteko, funtzionarioek garatu beharko lituzkete.

Alegazioak

Partzuergoen lege araubidearen funtsezko elementuei eusten dieten aginduak honako hauek dira: Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 118. artikulua eta hurrengoak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 104. eta hurrengo artikulua, eta Toki Araubideari buruzko arloan indarrean dauden legezko xedapenen Testu Bategineko 110. artikulua, besteak beste; bada, agindu horiek ezarri zuten partzuergoetako estatutuek zehaztuko dutela partzuergoen xedek eta araubide organiko, funtzional eta finantzarioaren ezaugarriak; horrenbestez, helburu zehatz eta definituei erantzuteko eraturako erakundeak direla aintzat hartuz, eta beste erakunde batzuen eskumen komuna ere badirela gogoratuz (nolanahi ere, erakunde horietako bat administrazio publiko bat izan behar da), legegileak antolaketa malgutu du, eta partzuergoko estatutuen esku utzi du partzuergoak ongi funtzionatzeko beharrianetarako modurik egokiena aukeratzea, betiere legea betez. Ildo beretik, Bizkaiko udalaz gaindiko esparruko erakundeak arautzen dituen martxoaren 30eko 3/1995 Foru Arauaren 30. artikuluan malgutasun irizpidea aurreikusi zen partzuergoen araubide organikoari dagokionez, eta horiek eratzea estatutuei dagokie, oinarrizko arauari, alegia. Horrez gain, gehitu behar da foru arau horrek mankomunitateen idazkaritza funtzioen inguruko arauak ere finkatu zituela (93.3 eta 4 artikulua); funtzio hori eta estaldura, berriz, ez zuen arautu partzuergoen kasuan; hala, partzuergoek bertako langileen araubidea eratzeko askatasuna dute, eta estatutuak onartzeko unean baliatu beharko dute askatasun hori.

Ikuspuntu horretatik, Partzuergoko Estatutuen 40. artikuluan ezarri zenez, “Partzuergoko langile-zerrenda osatzen duten langile guztiek izango duten jaurbidea lan legepekoa izango da. Aldi bakoitzean indarrean izango den zuzenbide pribatuzko arauteriaren bidez arautuko da jaurbide hori.” Aukera hori bat dator Partzuergo honen tradizio luzearekin, partzuergoa bera eratu zenetik bertako langileek lan arloko zuzenbideak araututako harremana izan baitute partzuergoarekin, eta gaur egun berariaz jasota dago Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 121. artikuluan, bertan xedatu baita, partzuergoetako langileen araubideari dagokionez, bertako langileek lan kontratudunak edo funtzionarioak izan ahalko direla. Partzuergoak, bada, atxikitako administrazio publikoaren aurrekontu, kontabilitate, kontrol ekonomiko-finantzario eta ondare kontrolaren araubidearen mende daude, eta aurreikuspen hori Bizkaiko Aurrekontu Orokorren Foru Arauaren Testu Bateginaren zazpigarren xedapen gehigarriaren baliokidea da, azken horrek finkatu baitzuen



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

foru sektore publikoak kontrolatutako partzuergoetarako aipatutako araubidea, eta Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoa Bizkaiko Foru Aldundira atxiki ondoren onartu zen.

5. ALEGAZIOA

III. KUDEAKETA PROZEDUREI ETA BARNE KONTROL SISTEMEI BURUZKO OHARRAK

III.3 ONDASUN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

Kontratazio espedienteak

Honako alderdi hauek nabarmendu behar dira 2013ko ekitalditik 2016ko ekitaldira arte BBUPek esleitutako hemeretzi kontratazio espediente, 137,5 milioi eurotan zenbatetsitakoak (ikusit A.14.1 Eranskina), berrikustearen ondorioz:

- *Guztira 69,3 milioi eurotan zenbatetsitako bederatzi obra espediente esleitu eta aztertuen artean batek ere ez dauka proiektua berrikusteko txostena, kontratazio araudiak ezartzen duena (1-9 espedienteak).*
- *Guztira 116,1 milioi eurotan zenbatetsitako hamabost kontratazio espediente esleituaren administrazio klausula berezien pleguetan “proposatutako hobekuntza objektiboak” esleipen irizpide gisa jaso da, baina ez da zehaztu hobekuntza horiek zein elementutan eta zein baldintzatan aztertuko diren (1-6 eta 8-15 espedienteak, eta 19. espedienteak).*
- *Guztira 116 milioi eurotan zenbatetsitako hamabost kontratazio espediente esleituetan, aztertu ondoren antzeman da hilabete baino gehiagoko atzerapenak izan direla proposamenak zabaltzen direnetik esleitu arte ezarritako bi hilabeteko epean (1-6, 8-10, 12-14 eta 16-18 espedienteak). Zazpi espedientetan hiru hilabete baino gehiagoko atzerapenak sortu dira.*

Alegazioak

Partzuergoak ez dauka proiektuak berrikusteko bulegorik.

Baldintzen pleguetan hobekuntzak baloratzean kontratuen administrazio auzitegi, kontsulta batzorde eta auzitegi arruntek emandako doktrinak izan dira abiapuntu. Printzipioz, kontratazio arloko araudiak ez zuenez horren inguruko ezer ezarri hobekuntzak edo aldaerak aztertzeari zegokionez, pleguetan jaso ohi dira, izaera orokorrarekin. Ondoren, eta duela gutxiko lizitazioetan, hobekuntzen irizpidea gehitzea mugatu egin da, edo aurreikusi denean irizpideak objektibo bihurtarazi dira, horiek baloratzeko modua eta baita kostu ekonomikoa ere.

Aipatutako SPKLTBko 161.4 artikuluan adierazitako epeak eskubidea ematen die lizitatzaillei proposamenak bertan behera uzteko. Atzerapena ez da baliaezintasuna dakarren irregularitasun bat, eta eskaintzak bertan behera uzteko aukera ematen du. Ez du baliaezintasuna eragiten. Hainbat kontsulta batzordek txosten ugari eman dituzte, eta doktrina finko eta berretsia da.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Atzerapenak sortu dira, oro har, lizitazioaren xede diren elementuen balorazio teknikoa egitea bereziki konplexua delako, aurkeztutako eskaintza kopurua areagotu egin delako eta administrazio izapide ugari eta konplexuak egin behar direlako eta horrek ia ezinezko egiten du aipatutako epea betetzea.

6. ALEGAZIOA

III. KUDEAKETA PROZEDUREI ETA BARNE KONTROL SISTEMEI BURUZKO OHARRAK

III.5 UDAL SAREAK, S.A.

Ondasunak eta zerbitzuak kontratatzea

- *Guztira 2,6 milioi eurotan zenbatetsitako bi zerbitzu kontratuen administrazio klausula berezien pleguetan adierazi denez (2013an esleituak), luzapena aplikatuz gero prezioak berrikusteko aukera egongo da bi aldeak ados egonez gero, eta berrikuspen hori ez da 2016ko ekitaldian gauzatu. Gure ustez, pleguetan berrikuspen indizeak finkatu behar dira araudi aplikagarriarekin bat etorriz, eta ezin da ondoren hitzartu (ikusi B.4 eranskina).*

Alegazioak

Atal honetan adierazi behar da UDAL SAREAK SA erakundeak zorrotz bete duela legedi aplikagarriak ezarritakoa, prezioak ez baitira berrikusi ez 2016ko ekitaldiko espedienteetan, ez ondorengoetan.





Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ABREVIATURAS

BOB	Boletín Oficial de Bizkaia
CABB	Consortio de Aguas de Bilbao-Bizkaia
DFB	Diputación Foral de Bizkaia
EDAR	Estación Depuradora de Aguas Residuales
IRPF	Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas
IVA	Impuesto sobre el Valor Añadido
RPT	Relación de Puestos de Trabajo
TVCP/HKEE	Tribunal Vasco de Cuentas Públicas/Herri-Kontuen Euskal Epaitegia





I. INTRODUCCIÓN

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas/Herri-Kontuen Euskal Epaitegia (TVCP-HKEE), de acuerdo con lo establecido en la Ley 1/1988, de 5 de febrero y en el Programa de Trabajo para 2017, ha realizado la fiscalización de la Cuenta General del Consorcio de Aguas de Bilbao-Bizkaia (CABB) correspondiente al ejercicio 2016.

La anterior fiscalización de la Cuenta General del CABB, realizada por el TVCP/HKEE, corresponde al ejercicio 2012.

La fiscalización abarca los siguientes aspectos:

- Legales: en las áreas presupuestaria, personal, contratación de obras, suministros y servicios y normativa sobre ingresos de derecho público.
- Contables: se analiza si las Cuentas del CABB y de las sociedades públicas con participación mayoritaria del CABB, Udal Sareak, S.A. y Aguas de Bilbao, S.A., se elaboran de conformidad con los principios contables que resultan de aplicación. Las cuentas de las tres entidades han sido auditadas por una firma externa, si bien está pendiente de emitirse el informe de Aguas de Bilbao, SA.
- El alcance del trabajo no incluye un análisis sobre la eficacia y eficiencia del gasto. No obstante, las deficiencias detectadas se detallan en el epígrafe “Consideraciones sobre los sistemas de control interno y procedimientos de gestión”.
- Análisis de la situación financiera del CABB.

El CABB fue constituido el 17 de marzo de 1967 entre la Corporación Administrativa Gran Bilbao y los ayuntamientos que la integraban en dicha fecha. Tiene personalidad y capacidad jurídica propias de conformidad con lo dispuesto en la Norma Foral 3/1995, de 30 de marzo, reguladora de las Entidades de Ámbito Supramunicipal de Bizkaia y en la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local. La Asamblea General del CABB aprobó, el 5 de noviembre de 2014, una modificación de estatutos por la que el CABB se adscribe a la DFB.

La actividad principal del CABB es la prestación de los servicios de abastecimiento de agua y saneamiento en el ámbito territorial de los municipios que lo componen, basada en los principios de integración de la gestión del ciclo del agua urbana, homogeneidad de la calidad del servicio y uniformidad de las tarifas en dicho ámbito territorial. Al 31 de diciembre de 2016 el número de ayuntamientos consorciados asciende a 80 municipios, pertenecientes al Territorio Histórico de Bizkaia, que se detallan al final de este apartado.

El 9 de mayo de 2000 fue constituida la sociedad Udal Sareak, S.A. estando relacionada su actividad con la gestión de las obras públicas de infraestructura del agua y los servicios relacionados con el servicio público del agua en su doble vertiente de abastecimiento y saneamiento, tanto en la red primaria como secundaria, en nombre propio o por cuenta y mandato del CABB, su único accionista.

El 28 de julio de 2000 fue constituida la sociedad Aguas de Bilbao, S.A. para gestionar la actividad del CABB en el exterior, participando el CABB en un 51% de su capital social.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

